

MUSIKAREN ALDE HURBILA

Beratu Musika Jaialdiaren hirugarren aldia martxoaren 25etik 29ra izango da. Euskal Herrian sortzen diren musika ezberdinak entzuteko aukera egongo da, tartean Hakima Flissi bilbotarrarena.

EMAKUMEEN nazioarteko eguna

MARTXOAK 8



EGITARAUA

MARTXOAK 5,
OSTEGUNA

ZINE KLUBA

*Retrato de una
mujer en llamas*

Kultur etxean, 20:00



MARTXOAK 6,
OSTIRALA

ANTZEZLANA 'Aintzaindariak'

(Elkar Hezik antolatuta).
Gloria Fuertes en olerkiak
ardatz hartuta, genero
berdintasuna aldarrikatzeko
antzezlan. Santa Ana aretoan, 19:00



MARTXOAK 7,
LARUNBATA

AZOKA Emakume artisauen azoka.
Herriko plazan (10:00-14:00)



BAZKARIA Emakumeen bazkaria Sare
Feministak antolatuta. Gaztetxean, 14:30

MARTXOAK 8,
IGANDEA

ELKARRETARATZEA

KONZENTRA-AKZIOA performace-arekin.

Foruen
plazan,
13:00



MARTXOAK 11,
ASTEAZKENA

LABURMETRAIAK

Zinhegoak hedapena.
Gay-lesbo-trans zinema
eta arte eszenikoen
nazioarteko jaialdia.
Kultur etxean, 19:30



MARTXOAK 12,
OSTEGUNA

ZINE KLUBA

*La vida invisible de Eurídice
Gusmão.*

Kultur etxean, 20:00



MARTXOAK 23,
ASTELEHENA

**SEXUALITATEA ETA
IPUIN EROTIKOAK**



*Tuppersex
y cuentos
eróticos.*
Virginia imaz
eta Inma
Merino.
makumeentzat).
Kultur etxeko
atikoan
17:30-20:30.
(Gaztelaraz).

MARTXOAK 25,
ASTEAZKENA

HITZALDIA *Microfísica
sexista del poder.* Nerea
Barjola. Euskaldun berria
gelan, 18:00 (Gaztelaraz)



MARTXOAK 28,
LARUNBATA

PSIKOLOGIA TAILERRA MUNAY:

Emakume migratuentzat psikologia tailerra.
Úrsula Santa Cruz. Euskaldun berria gelan
(10:00-13:00) (izen ematea: www.oñati.eus)

» JONE ARRIOLABENGOA / Udaleko Berdintasun teknikaria

«Mobilizaziorako eta aldarrikapenerako eguna izango da aurten ere martxoaren 8a»

Berdintasun Plana, Emakumeen Kontseilua, Emakumeen Etxea, Jabetze Eskola, Hezkidetzaren programa... Askok dira berdintasun arloan Oñatiko udalak esku artean dituen ekimenak. Horiei guztiei buruz hitz egin dugu Jone Arriolabengoa berdintasun teknikariarekin, martxoaren 8aren atarian.



Badator martxoaren 8a. Aurten ez da azken urteetako mobilizazio erraldoirik egingo, baina ekitaldi egitarau zabala prestatu duzue herriko sare feministarekin batera. Zein mezu zabaldu nahi zenuke?

Mugimendu feministak ez du greba deialdirik egin, baina mobilizaziorako eta aldarrikapenarako eguna izango da aurten martxoaren 8a ere. Egitarau zabala osatu da sare feministarekin eta bestelako eragileekin elkarlanean, gogoetarako, aldarrikapenerako eta gozamenerako aukera zabala eskainiz. Beraz, herritarrak parte hartzea eta bakoitzak bere espaziotik eragitera animatuko nituzke.

Oñatiko II. Berdintasun

Plana egitea erabaki du berriki udalak. 2012an onartu zen lehen plana. Zein izan da haren betetze maila? Zer burutu da eta zer gelditu da egiteke? Zer jaso beharko luke, zure ustez, plan berriak? Nola egingo da? Zein epetan?

Galdera horietan erantzun beharko ditu, hain zuzen, planaren oinarri izango den ebaluazioak. Izan ere, 2020 honetan, lehenengo lana izango da 2012an onartu zen dokumentua aztertu, ekintzen burutze maila eta planaren egokitasuna neurtu eta azken zortzi urteotan emandako aldaketak mahai gainean jartzea. Hala, egungo eszenatokiaren gainean, estrategia, helburu eta lan ildoak zehaztuko dira, datozen lau urteotan berdintasun politiken oinarri izan daitezen.

Apirila amaieran lanean hastea da asmoa, eta kontratuak 12 hilabeteko iraupena izango du. Hala, 2021. urtean dokumentu berria onartzea da hasierako helburua.

Oñatiko Emakumeen Kontseilua sortzeko prozesua jarri zenuten martxan 2018an. Hainbat bilera egin dituzue orduz geroztik. Zertan da egitasmoa? Zer izango da Emakumeen Kontseilua, eta



BERDINTASUN PLANA

Berdintasun Plana berritzeari ekin dio udalak. Egungo eszenatokitik abiatuz, estrategia, helburu eta lan ildoak zehaztuko dira bertan, datozen lau urteetan berdintasun politiken oinarri izan daitezen



HIRU HAMARKADA BAINO GEHIAGO
EUSKAL SUKALDARITZA ONENA ESKAINTZEN
MENU AUKERA ZABALA, OSPAKIZUN BEREZIAK, EZKONTZAK ETA EDOZEIN MOTAKO
BAZKARI EDO AFARIAK EGITEKO INGURUNE LILURAGARRIA.
SUKALDE ZERBITZUA ERABERRITU DUGU. EZ GELDITU PROBATU GABE!
Etxe-Aundi
Udala - Jantzeria
T. 943 78 19 56 | www.etxeaundi.com

zein bere egitekoa? Noizko aurreikusten duzue?

2019ko udaberrian eman zen amaitutzat Oñatiko Emakumien Kontseiluaren eratze prozesua. Bide korapilatsua izan da, parte hartzaileen ahalegin eta inplikazioarekin aurrera ateratakoa. Hala, talde anitz eta irekia osatu zen, parte hartu nahi duen edozeini irekia. Hasierako prozesu hori amaituta, taldekideek euren burua eta taldea bera kokatzeko beharra ikusi zuten, eta horretan ari gara; urteko erronkak eta zereginak zehaztu eta poliki poliki pausuak ematen, udal politiketan emakumeen esperientziak, jakintzak eta ahotsa entzunarazteko zubiak eraikitze helburuarekin.

2018ko Partaidetzazko Aurrekontuetan 'Emakumeen Etxea' martxan jartzeko herri mailako diagnostikoa egitea izan zen herritarrek lehene-tsitako proposamenetako bat. Zer izango litzateke, zehazki, Emakumeen Etxea? Ze ibilbide izango proiektu horrek?

Ez da erraza erantzuten. Dena dago definitzeki, eta herriko emakume ezberdinen beharrak eta egitasmoak izango dira egitasmoa ardaztuko dutenak. Behar eta egitasmo horiek biltzeko diagnostikoa egitea izango da lehenengo lana, eta horren gainean emango dira hurrengo urratsak. Proiektuak izango duen ibilbidea aldiz, parte hartze prozesu horretan herriko emakumeen, elkarte feministen, eta udalaren arteko sintoniak ezarriko du. Edozelan ere, herriko emakumeen ahalduntze eta parte hartzean berebiziko

**EMAKUMEEN KONTSEILUA**

Udal politiketan emakumeen esperientziak, jakintzak eta ahotsa entzunarazteko zubiak eraikitze helburuarekin eratu da Oñatiko Emakumeen Kontseilua.

EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeon ahalduntze eta parte hartzean berebiziko garrantzia izan dezakeen egitasmoa da. Denon lana izango da proiektua definitzea.

JABETZE ESKOLA

Urtean 200 emakume inguruk parte hartzen dute antolatutako ikastaro eta hitzaldietan. Babeserako, partekatze eta elkarlanerako gune garrantzitsua da emakume askorentzat.

garrantzia izan dezakeen egitasmoa da, eta eskatuko duen inplikazioa eta konpromisoa ere handia izango da.

Jabetze Eskolaren aldeko apustua egiten ari da azken urteotan udala. Emakumeei zuzendutako hainbat hitzaldi, tailer, ikastaro... antolatzen dira. Zer nolako erantzuna izaten du? Zein da balorazioa?

Esan genezake egonkortzera egin duen egitasmoa dela. Urtean 200 emakume inguruk hartzen dute parte antolatutako ikastaro eta hitzaldietan, eta poliki-poliki badabil ezarritako helburuak lortzen. Parte hartzaileen balorazioak ere oso positiboak dira, eta babeserako,

partekatze eta elkarlanerako gune garrantzitsua da dagoeneko askorentzat. Dena den, beste bultzada bat emateko helburuarekin, hausnarketa prozesu batean murgilduta gaude: Jabetze eskolako erabiltzaileak, emakumeen kontseilua eta udalaren arteko elkarlanaren bidez, ikastaroen antolaketa bera herriko emakumeen beharretara egokitu, eta eginiko eskaintza herriko emakume gehiagorengana iristeko bideak urratu nahian gabiltza.

Indarkeria marxistaren biktima diren emakumeenganako arreta hobetzea helburu duen erakunde arteko (Udala, Osakidetza, Ertzaintza) koordinazio protokoloa sinatu berri duzue. Zein da bere garrantzia? Zertan hobetuko da arreta?

Koordinaziorako protokoloaren helburua da indarkeria matxista jasan duten emakumeen arreta hobetzea, eta bigarren biktimizazioak saihestea. Horretarako, ezinbestekoa da arreta horretan inplikaturako eragile guztien arteko sare sendoa eratzea. Irizpideak bateratu, koordinazio bideak findu, eta zerbitzuok elkarren osagarri izan daitezkeelako ustearen baitan artikulatzea. Indarkeria matxista jasan duen emakume batek, edozein bidetatik doala ere, ahal den arreta egokiena eta informazio zabalena izan dezan.

Bide horretan urrats bat da protokoloa, baina orain erronka nagusia protokolo hori bizirik mantentzea izango da. Koordinaziorako mahai bat



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko ogia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

sortu da, eta martxoan izango du lehenengo bilera.

Gazteen ere badiharduzue lanean Hezkidetza programa eta Gaztelekuan eskaintzen duzuen sexu-aholkularitza zerbitzuaren bidez. Zein dira programa horien helburua? Zein da balorazioa?

Hezkidetza egitasmoaren helburua da Oñatiko hezkuntza komunitatean harreman berdinzaleak sustatzea eta indarkeria matxistaren prebentzioan eragitea.

2012 urtean hasi zen Oñatiko udala, ikastetxeekin elkarlanean, hezkidetzaren gaia lantzen. Hezkidetza arloko koordinazio mahaitik egiten zaio egitasmo honi jarraipena, eta oso gustura gaude orain arte emandako emaitzarekin, eta uste dut ikastetxeekin konpartitutako sentsazioa dela. Gaur egun Lehen hezkuntzako 5. Mailatik batxilergora arteko ikasleekin eta irakasleekin ari gara lanean, eta gazte lekuarekin etengabeko koordinazioan.

Helduei zuzendutako 'Xirrika' sexu-aholkularitza zerbitzua ere ipini zenuten martxan 2017an Bidebarrieta kalean. Nori zuzenduta dago? Zein da helburua? Nolako harrera izan du?

Gazteen aldean, helduoi gehiago kostatzen zaigu lehenengo pausu hori ematea, eta poliki-poliki bere lekua egiten ari den zerbitzu bat da. Urtero herritar gehiago dira zerbitzura gerturatzen direnak, eta bikote harremanen inguruan, sexualitatearen inguruan, menopausia edo hilerokoaren



HEZKIDETZA PROGRAMA

Ikastetxeekin elkarlanean, gazteen artean harreman berdinzaleak sustatzea eta indarkeria matxistaren prebentzioan eragitea da helburua.

'XIRRIKA' ZERBITZUA

Helduoi zuzendutako sexu-aholkularitza zerbitzua da; norbere edo bikoteko zalantzak argitzeko, edo guraso nahiz irakasle gisa orientabideak jasotzeko.

inguruan... dituzten zalantzak profesional batekin konpartitzeko pausua ematen dutenak.

Edozein herritarrei zuzendutako zerbitzua da; norbere edo bikoteko zalantzak argitzeko, edo guraso edo irakasle gisa orientabideak jasotzeko. Hitzordua eskatzeko, txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com helbidera idatzi, eta zuzenean zerbitzuaz arduratzen den sexologoarekin jar daiteke harremanetan, interesa duen edonor. ■



Zaintza-lanen bilakaera historikoa eta eredu demokratikoago baterako aukerak aztertuko dituzte Selma Huxley Barkham bekari esker

Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpena balioan jartzea helburu duen **Selma Huxley Barkham** beka (18.000€) Jone Arrazola eta Miren Arangureni ematea erabaki du udaleko Berdintasun sailak, 'Bizitzak Erdigunean. Oñatiko zaintzaileen genealogia feminista 1950-2020' izenburua duen ikerketa lana burutzeko. Zaintza lanek herriko ekonomian duten zentralitatea sozializatu eta zeregin horietan jardun duten emakumeen lana aitortzea da helburua. Horrez gain, kontzientziazio lan bat ere egin nahi dute, gaur egungo zaintza eredua beste batzuen eskubideen urraketan oinarrituta dagoela ohartarazteko. Azkenik, herri konpromiso bat hartzea izango da helburua, herrigintzatik eta udalgintzatik urratsak ematen hasteko zaintza eredu demokratiko baterantz. Urtebeteko epea izango dute lana burutzeko, eta beste sei hilabete emaitza gizarteratzeko. ■

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Cegasako Oñatiko langileek etorkizuna argiago ikusten dute Autlán enpresa mexikarraren eskutik

Izena aldatuko diote Oñatiko lantegiari; *Cegasa Portable Energy* izatetik, **AUTLAN EMD** izatera pasako da



45 langile ditu Autlán-ek erosi duen Cegasaren Oñatiko lantegiak

CEGASA, 1934an sortutako enpresa, bere historiaren kapitulu berri bat idaztera pasako da laster, bai behintzat Oñatiko lantegiari dagokionez, Lizaur kaleko 1 zenbakian egoitza duen faktoriak jabe berriaren izena hartuko baitu laster: AUTLAN EMD (*Dioxido Manganoso Elektrolitikoa*, ingelesez).

Otsailaren 11n jakin genuen *Sherpa Capital* funtsak Mexikoko Autlán meagintza enpresari saldu ziola manganoso dioxidoa ekoizten duen Oñatiko lantegia 26,3 milioi eurotan. Gogoratu, Sherpak 2015ean eskuratu zuela Cegasaren hiru negozio unitate (manganosoa, pila industrialak eta pilen banaketa) 2,5 milioitan, Juan Zelaia zenaren enpresa hartzekodunen konkurtsoan

sartu zenean.

Iazko udan, Sherpak Oñatitik Gasteizera eraman zuen pila industrialen eta litiozko baterien negozio unitatea, eta orain, esan bezala, Oñatiko lantegia saldu dio Autlán-i. Gasteizko lantegiak Sherparen esku jarraitzen du.



Manganosoaren sektorean ibilbide luzea du Autlán-ek eta ikusten ari gara sinergiak aprobetxatzeko aukera handiak ditugula

» SERGIO ROMERO / Gerentea

ENPRESA MEXIKARRA


Orain arte Cegasarena izan den

Oñatiko lantegiaren ugazaba berria Autlán enpresa mexikarra da. Manganosoaren industrian 65 urtetik gorako esperientzia du eta, horrez gain, urre meategiak eta zentral hidroelektrikoak ere baditu, eta altzairugintzan ere egiten du lan.

Ertain eta Ipar Amerikako manganoso ekoizlerik handiena da Autlán, eta Oñatiko lantegia erosita, urrats bat gehiago eman nahi du negozioa dibertsifikatu (baterien industria) eta merkatua zabaltzeko Europar Batasunean.

Cegasa-Oñatiko lantaldeak begi onez eta itxaropentsu jaso du mexikarren iritsiera. "Manganosoaren sektorean oso eza-guna da Autlán, eta horrek ate asko irekiko dizkigu" adierazi digu Sergio Romero gerenteak. "Autlán-ek bere meategi propioak ditu eta etorkizunean lehengaia bertatik ekartzeko aukera zabaltzen da. Gainera, manganosoaren sektorean ibilbide eta esperientzia luzea duen enpresa izanik, *know how* edo ezagutza handia du, baita geuk ere, eta ikusten ari gara sinergiak aprobetxatzeko aukera handia dugula. Elkarrengandik ikasten ari gara, eta, egia esan, ilusio handiz ari gara lanean. Epe luzerako apustu sendoa dela ikusten ari gara".

Lantegiaren izena aldatzetik aparte, Autlán-ek ez dauka Oñatin iraultza handirik egiteko asmorik, oraingoz. "Iritsi berriak dira eta oraindik aztertzen ari dira hemengo fabrikazio prozesuak. Azken batean, Oñatiko lantegia emaitza onak



Sergio Romero, Oñatiko lantegiko gerentea, -ezkerretik bigarrena-, Autlán enpresako ordezkariekin

KOGENERAZIO UNITATEA

Manganesoaren negozioaz gain, Cegasak Iberdrolarekin erdibana zuen kogenerazio planta ere erosi du Autlán-ek. Manganesoa eraldatzeko prozesuetan behar den energia kopuru handia era eraginkorrago baten sortzea da bere funtzioa.

"Oinarrian gasa erabiltzen dugu energia elektrikoa sortzeko, baina, horrez gain, motorrek erretako gasa eta motorrak hozteko erabiltzen den ura, lurruna eta gure prozesuetarako behar dugun energia termikoa sortzeko aprobetxatzen dugu, beraz, oso eraginkorra den teknologia da" azaldu digu Romerok. ■

ematen ari da, negozio sendoa da, egonkorra, eta ez dago zertan aldaketa handirik egin. Ekoizpen prozesuan eta errentagarritasunean eragiten duten xehetasun guztiak aztertzen ari gara, eta poliki poliki joango gara beharrezko doikuntzak egiten. Oraingoz elkar ezagutzen ari gara, gure artean egon daitezkeen sinergiak baliatzeko asmoz beti ere" dio Romerok.

Oñatiko manganeso planta Europako bigarren ekoizlerik garrantzitsuen da eta iaz 17,7 milioi euro fakturatu zituen. Hegoafrikatik ekarritako manganeso naturaletik abiatuz, pila alkalinoen katodoaren osagai nagusia den dioxido manganesoa ekoizten dute. Gaur egun 47 langilek dihardute Oñatiko lantegian, eta horietatik 17 dira oñatiarrak.

Sherparen esku geratu den Gasteizko lantegian ziurgabetasuna da nagusi

Iazko ekainean Sherpa Capital funtsak banatu egin zituen Cegasari 2015ean erositako negozioak: Pila industrialak eta litiozko bateriak alde batetik, eta manganesoa bestetik. Ekaina eta abuztua bitartean, Miñaora (Gasteiz) eraman zituen pilen eta baterien negozioak, manganesoa hemen utziz. Hilabete batzuk beranduago Autlán-i saldu zion Oñatiko lantegia eta, beraz, Gasteizko bi negozio unitateak geratu dira Sherparen esku.

Une honetan 88 lagunek dihardute Miñaon, horietatik 19 oñatiarrak, eta hauetako batzuek esan digutenez, ziurgabetasuna da nagusi. Pila industrialen negozioa nahiko ondo doa, inbertsioak egiten hasi dira eta lanik ez da falta, baina mozkin-marjina txikia duen negozioa da. Cegasaren apustua, une honetan, litiozko baterien aldekoa da. Energia biltzeko teknologia berria eta garbia garatzen ari dira eta, badiirudi, etorkizun handiko negozioa izan daitekeela, baina nahi baino astiroago doa, eta salmenta aurreikuspenak bete ezinik dabilta.

Bestalde, Arabako lan-hitzarmenaren babesean, kontratazio berrietan Sherpa ezartzen ari den baldintzek ere (soldata, lan orduak...) kezka sortzen du langileen artean, 2021ean amaituko baita egun indarrean dagoen hitzarmena. ■



Litiozko baterien aldeko apustua egiten ari dira Gasteizen, baina salmenta aurreikuspenak bete ezinik dabilta

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

9,8 milioiko aurrekontua onartu du 2020rako

Agintaldiko lehenengo aurrekontuak onartu ditu Debagoieneko udalen elkarteak. Bertako presidente **Maite Antonek** azaldu dizkigu esku artean dituzten proiektuak.

• MANKOMUNITATEAREN OSAERA

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalerriek osatzen dute Debagoieneko Mankomunitatea. Guztira, 65.000 inguru biztanleri ematen die zerbitzua.

• EGITURA ORGANIKOA

- GOBERNU JUNTA

Gobernu-organo gorena da eta berari dagokio garrantzirik handieneko akordioak eta erabakiak hartzea.

Herri bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera, **Arrasatek** 4 ordezkari ditu, **Bergarak** eta **Oñatik** 3na, **Aretxabaletak** 2 eta **gainerako herriek** 1na.

Gobernu Junta hileroko azken astear-tetan batzartzen da, Informazio Batzordeetatik iristen diren gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko.

- INFORMAZIO BATZORDEAK

Une honetan 4 Informazio Batzorde ditu Mankomunitateak:

- *Ingurumena*
- *Garapen ekonomikoa eta Turismoa*
- *Ogasuna*
- *Pertsonala*.

Udal bakoitzeko ordezkari batek osatzen dituzte batzordeak, eta hilean behin batzartzen dira.



• 2020KO AURREKONTUAK

9,8 milioi euroko aurrekontua onartu du Mankomunitateak 2020rako, EH Bilduko 8 ordezkarien eta Leintz-Gatzagakoaren aldeko botoekin eta EAJko 7 ordezkarien abstentzioarekin.

Mankomunitatearen diru iturri nagusia bertako udalen ekarpena da. Kopuruak kalkulatzeko, biztanle kopurua, herri bakoitzak duen jardura ekonomikoa eta langile kopurua hartzen dira kontuan, besteak beste. Hala, Oñatiko udalak aurtengo 1.223.572 euroko ekarpena egingo dio Mankomunitateari, Arrasatek 2,5 milioi, Bergarak 1,8, Aretxabaletak 799 mila, Eskoriatzak 479 mila, Antzuolak 212 mila, Elgetak 143 mila eta Gatzagak 17 mila.

2020ko AURREKONTUA KAPITULUKA

PERTSONAL GASTUAK	2.518.053,25 €
GASTU ARRUNTAK	6.495.165,35 €
FINANTZA GASTUAK	100,00 €
TRANSFER. ERREALAK	353.143,27 €
INBERTSIOAK	295.001,00 €
KAPITAL TRANSFER.	0,00 €
AKTIBO ALDAKETAK	10.820,00 €
PASIBO ALDAKETAK	162.753,36 €
GUZTIRA	9.835.036,23 €

2020ko AURREKONTUA ZERBITZUKA

ZERBITZU OROKORRAK	767.250,68 €
KIROLA	22.500,00 €
INGURUMENA	7.309.021,83 €
EPELE	126.994,18 €
GARAPEN AGENTZIA	1.088.937,82 €
TURISMO	339.578,36 €
UDAL KOORDINAZIOA	162.753,36 €
GUZTIRA	9.835.036,23 €

MAITE ANTON LENO

Mankomunitateko presidentea

"Hondakinak murrizteko eta gaikako bilketa hobetzeko sentsibilizazio kanpaina egingo dugu aurten"

Oñatiko udalak Mankomunitatean dituen hiru ordezkarietako bat da Maite Anton (Oñati, 1984), Izaro Elorza eta Anik Zubizarretarekin batera. Gobernu Juntako presidentea izateaz agin, Ingurumen batzordeko burua ere bada Anton. Egun erdiko dedikazioa du bertan. Oñatiko udaleko kirol batzordeko buru eta Ingurumen batzordeko kide ere bada.



Bost hilabete igaro dira Mankomunitateko presidente kargua hartu zenuenetik. Zer moduz?

Denboratxo bat behar izan dut Mankomunitatea zer den eta eskaintzen dituen zerbitzuak hobeto ezagutzeko, baina, egia esan, bertako langile eta teknikariek asko lagundu didate, eta gustura nago. Erronka bat da niretako, baina ilusioz nago.

Herritar askorentzat erakunde ezezaguna da Mankomunitatea. Zein dira bere egiteko nagusiak?

Hondakinak kudeaketa da gaur egun Mankomunitateak ematen duen zerbitzu nagusia. Etxe, denda eta industrietako hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeaz gain, ingurumenarekin

lotutako informazio eta sentsibilizazio kanpainak ere antolatzen ditu.

Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentzia da beste zerbitzu nagusietako bat: enplegurako



Hondakinak gaikako bilketa datuak onak dira, baina karakterizazioak erakusten digu gauzak hobeto egin ditzakegula

prestakuntza eta orientabidea; Enpresa Ekintzetarako Zentroa; enpresa txiki eta ertainentzako informazioa eta laguntza...

Turismo arloan ere, eskualdeko ondarea, natura eta gastro-

nomia promozionatzeko hainbat ekimen (*Puntaik Punta* jaialdia, Gastronomía Jardunaldiak, Erle Eguna, Gatzaren Eguna, Tomatearen Astea...) antolatzen ditu. Arantzazuko turismo bulegoa ere berak kudeatzen du

Kirol zerbitzua ere badauka Mankomunitateak, herrietako kirol arduradunekin lankidetzan aritzen dena: Debagoieneko Kirol Txartela, Kirola euskaraz...

Horiek dira gaur egun dituen zerbitzuak. Dena den, eskualde mailan modu bateratuan jorratu nahi den edozein proiektu izan dezake lekua Mankomunitatean.

Aurtengo egitasmoen artean, hondakinak murrizteko eta hobeto bereizteko sentsibilizazio kanpaina bat iragarri duzue.

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Mireia
MIREIA MUGARZA
FISIOTERAPIA - HAUR OSTEOPATIA
Elkarkide z.b. 2870

LOPE AGIRRE 8, behea | T. 652 55 67 11 | mireiamugarza.fisio@gmail.com

Jaitsiera egon al da hondakinen gaikako bilketan. Erlaxatu egin al gara?

Gaikako bilketa datuak onak dira (%75 inguru) beste eskualde batzuekin alderatuz, baina egia da pittin bat behera egin dutela iaztik hona. Ez dakit erlaxatu garen ala ez, baina uste dugu gauzak hobeto egin ditzakegula. Horregatik, kontzientziazio kanpaina bat egin nahi dugu, hondakinak murriztu eta hobeto bereizteko helburuarekin.

Ildo berean, edukiontzietan jasotzen diren hondakinen karakterizazioa hemen bertan egin nahi dugu (zer jasotzen den eta zertan hobetu dezakegun ikusteko) eta horretara 20.000 euro bideratuko ditugu.

Nora bideratzen dira Oñatin eta bailarako beste herrietan batzen diren hondakinak?

Hondakin organikoa Epeleko konpostatze plantara eramaten da. Bertan konposta egin eta ondoren komertzializatu egiten du GHKk (Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioa).

Errefusa Elgoibarko transferentzi plantara bideratzen da. Papera eta kartoia Arregi-Etxabe enpresa kudeatzaile baimendua-
ren esku uzten dugu, eta ontzi arinak GHK-k Legazpin daukan plantara eramaten ditugu; ahal den guztia birziklatzeko.



Deba ibaia garbi mantentzeko plangintza diseinatu nahi dugu Debagoieneko Lagunkoia jubilatutaldearekin elkarlanean

Eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mapa egin nahi dugu, etorkizuneko beharrak eta nola bideratuko ditugun definitzeko

Zaldibarko zabortegean gertatutako hondamendiaren harira, hango hondakin batzuk Epelelora ekartzeko aukera aipatu da komunikabide batzuetan. Hala al da?

Ez. Industria-hondakin geldoak jasotzeko Epeleko zabortegeak ez du zerbitzurik ematen 2018ko irailaz geroztik; orduetik ez da hondakinik isuri bertara. Oraindik badago lekua bertan (beste 330m³ jasotzeko beste), baina momentu honetan ezinezkoa da Epelen hondakinak jasotzea. Horretarako, alde batetik, gaur egun beteta dagoen 2. zelda zigilatu egin beharko litzateke, eta, bestetik, 3. zelda ustiatu ahal izateko inpermeabilizatu egin beharko litzateke. Azterketa tekniko-ekonomikoa egiten ari gara eta datozen

asteetan hartuko dugu erabakia.

Deba ibaia garbi mantentzeko plangintza bat diseinatzen asmoa ere iragarri duzu 2020ko egitasmoen artean.

Aurreko agintaldian mankomunitateko Ingurumen batzordeari 'Hondakin bilketa eta kudeaketa batzordea' izena ipini zioten, eta guk uste dugu ingurumena ez dela hondakin kontua bakarrik, beste kezka batzuk ere badaudela ingurumenarekin lotuta.

Duela bi hilabete Debagoieneko Lagunkoia jubilatutaldea etorri zen gobernu juntara, Deba ibaiaren inguruan egin duten lanketa azaltzera. Oso interesgarria iruditu zitzaigun, eta gure planekin bat datorrenez, elkarrekin plangintza bat diseinatzea pentsatu dugu, eskualdea ardazten duen ibaia garbi mantentzeko helburuarekin.

Gizarte zerbitzuen mapa egiteko asmoa ere baduzue, ezta?

Aurre-lanketa bat eginda dago lehendik, eta berriro heldu nahi diogu. Gure gizarteak etorkizunera begira dituen erronka nagusietako bat da eta, beraz, ondo aztertu behar dugu gaur egun ze azpiegitura eta baliabide ditugun, etorkizunera begira ze behar aurreikusten diren, eta nola bideratuko dugun erantzun egokia eman ahal izateko. ■



Gualbi

asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



Oñabike, bizikletazaleen paradisia

Bezeroari ahalik eta arreta onena eman nahian, **marka-irudia aldatu** eta **instalakuntza guztia eraberritu** du Caravanas Oñate bizikleta denda ohiak

Ia hiru hamarkadako ibilbidea eginda, bizikleta denda goitik behera aldatu duzue. Bai, halaxe da. Galdaragintza moduan hasi genuen ibilbidea 1993an. Horrekin batera, erremolkeetan eta karabanan ere sartu ginen baina handik gutxira karabanak saltzeari utzi genion. Bizikleta denda 1995ean zabaldu genuen.

Hasieran Zubillagan hasi ginen eta azken 19 urteetan Kasablankan (Otaui 25) daude gure instalazioak. Bazen aldaketa sakon bat egiteko garaia!

Nolatan hasi zintaten bizikleten munduan?

Bazkideetako batek txirrindularitzarekiko zeukan zaletasunagatik izan zen. Garai hartan txirrindulari taldea ere izan genuen. Horrez gain, Migelin bezalako mekanikari batekin

lan egiteak asko erraztu zuen guztia. Bizikleten gaineko jakintza handia dauka. Esan genezake bere pasioa ogibide bihurtu duela eta hori lan egiteko eran eta bezeroarekiko arretan balio erantsia da.

Zergatik bizikleta dendaren aldaketa integral hau?

Aurrez esan bezala, bizikleta denda sortu genuenerako bi urte generamatzen enpresarekin, eta hasierako izena (Caravanas Oñate) mantentzea erabaki genuen. Orduetik hona, bizikletaren merkaturatua

«Salmentatik hasi eta tailer mekanikoraino. Oñabiken zerbitzu integrala eskaintzen diogu bezeroari»



Oñabikeko lan-taldea.

asko aldatu da eta garai berrietara egokitu beharra dagoela ikusirik, nortasun propioa daukan marka sortzea erabaki dugu.

Horren ondoren, instalazio guztia itxuraldatu, espazioak egokitu eta denda kontzeptuala sortu dugu.

Zer eskainiko digu bada Oñabike berriak?

Bizikletaren inguruko zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu. Salmentatik hasi eta tailer mekanikoraino. Tartean, biomekanika, erropa, nutrizioa, osagarriak, patineteak eta aholkularitza ere eskaintzen

diogu bezeroari. Pinarello, Giant, Micro patineteak edo Joma bezalako marka ezagunen banatzaile ofizialak ere bagara gainera.

Etorkizunera begira, zein da zuen helburu nagusia?

Bezeroa da aurrera egiteko daukagun motibazio handiena. Zerbitzurik onena ematen saiatuko gara eta beti gertuko tratua eskainiz.

Hori da, herriko merkataria bezala, bereizi behar gaituena. Era berean, herriko kirol talde eta ekitaldiak babesten eta laguntzen jarraituko dugu, orain arte bezala.



BIZIKLETAK - PATINETEAK - KIROL EKIPAZIOAK

Otaui Zuhaitzia, 25
T. 943 78 05 65

Bezeroentzako aparkaleku pribatua



www.oñabike.com

JOSEBA ASIRON / Nabarralde fundazioa

"Historiak zilegitasuna ematen du estatu propioa aldarrikatzeko, baina askoz ere gehiago ematen du herriaren borondateak"

Kultur etxeko zine aretoa lepo bete zen Kotsailaren 4an, 'GUTAZ' jardunaldiaren baitan Joseba Asiron historialariak emandako hitzaldia entzuteko. Geuk ere aukera baliatu genuen berarekin hitz egiteko, euskal herritarrok estatu propioa aldarrikatzeko dugun zilegitasunaz eta eman beharreko urratsez.



Nabarraldek urteak daramatza Euskal Herriaren memoria kolektiboa berreskuratu eta ezagutzera ematen. Zein helbururekin?

Bai. Azken urteotan mendeetan zehar historiografia ofizialak helarazitako iruzurrak gezurtatu izan dira. 2012an Konkistaren bosgarren mendeurrenaren harira historiografia berri oso bat sortu da, indar handiz, eta bere eragina oso onuragarria izaten ari da. Gure historia ezagutu behar dugu, zer garen ulertzeko zer izan garen jakitea beharrezkoa da eta.

Gure historia beste batzuek kontatu izan dute eta, oro har, euskal herritarrok ez gara gure errelatoaren jabe. Zer da, zure ustez, euskal herritar orok bere iraganaz izan beharko lukeen oinarritzko ezagutza, gaur egungo egoera ulertzeko?

Erraza da: Euskaldunok herri bat osatu dugu historian zehar, bere nortasun propioarekin. Kontzientzia horren ondorioz sortu zen Nafar estatua, nortasun hura

eta independentzia bermatzeko asmoz. Gero, etengabeko konkistak proiektu hori ahultzen joan ziren, 1200en, 1512an, 1620an... baina "mila urte igarota, ura bere bidean", hemen gaude oraindik...



MEMORIA HISTORIKOA

Gure historia ezagutu behar dugu, zer garen ulertzeko zer izan garen jakitea beharrezkoa da eta. Historia jakiteak herri baten borondatea sortzen lagundu dezake

EUSKAL ESTATUA

Euskaldunak gauza izan ziren estatu propioa eratzeke, Nafarroa. Eta proiektu arrakastatsu eta bideragarria izan zen 800 urteetan zehar

Historiak eskubidea edo zilegitasuna ematen al digu estatu propio bat aldarrikatzeko?

Euskaldunak gauza izan ziren estatu propioa eratzeke, Nafarroa. Eta proiektu arrakastatsu

eta bideragarria izan zen 800 urteetan zehar, eta oraindik iraungo zuen inguruko inperialismoagatik izango ez balitz. Horrexegatik gaur egun, 2020. urteko euskaldunok eskubide historiko horiek aldarrikatzen ditugu.

Historiak zilegitasuna ematen du, noski baietz, baina askoz ere gehiago ematen du herriaren borondateak. Kontua da historiak borondate hori sortzen eta hazten lagundu dezakeela, zailantzarik gabe.


Nafarroak izan beharko euskal herritarren estatua 2020an?

Nik beti esaten dut Euskal Herria eta Nafarroa txanpon beraren bi aldeak direla. Bata kulturala, nazionala, eta bestea politikoa, baina horri ez diot nik garrantzi handirik ematen. Ez behintzat momentu honetan. Zorritzarrez gure estatu independenteari zein izena emango diogun erabakitzeko momentuan ez gaude oraindik. Momentua iristen denean nik Nafarroa izenaren alde egingo nuke apustua, oso izen



'Erraiak' dokumentala

MARTXOAK 10, KULTUR ETXEA, 19:00



Nabarralde fundazioko Oñatiko sustatzaileek udalaren laguntzarekin antolatu duten 'Gutaz' jardunaldietako azken saioa izango dugu martxoaren 10ean.

Irrintziaren jatorrien eta zentzuaren inguruan Ekain Martinez de Lizarduy antropologo donostiarrak zuzendu duen **'Erraiak. Arbasoen oihartzuna'** (33') dokumentala ikusi ahal izango dugu bertan eta, ondoren, egilearekin hitz egiteko aukera egongo da.

Kobazuloetatik datorkigun oihua da irrintzia. Entzun, sentitu eta kantatu egiten duguna. Hitzik gabeko hizkuntza. Erraietatik ateratzen zaiguna. Arbasoen oihartzuna. Baina noiztik dugu irrintzia gure artean? Bizirik jarraitzen al du XXI. mendean? Horien erantzuna bilatzen duen ariketa da 'Erraiak' dokumentala.

ona da...!, baina egia da izena baina askoz ere garrantzitsua-goak diren aferak bideratu behar ditugula lehenago...

Konplexuz betetako herria garela esan zuen Asisko Urmenetak Oñatin emandako hitzaldian; gure herriak askatasuna lortzeko, aurrena, subjektu politikoa kohesio-natu beharra dagoela esan izan du Urzainquik. Askatze prozesurako urratsak emateko tenorean ikusten al duzu gaur egun euskal gizartea?

Tantaka-tantaka. Hau epe luzeko lana da. Presak ez dira onak, pedagogia berriz, bai. Munduan XX. mendean egon diren arazoak (Palestina, Yugoslabia zena...) eta abar ulertzeko haien sustrai historikoak ezagutu behar diren bezalaxe, guk ere geure herriarekin gauza bera egin behar dugu. Pedagogia egin behar dugu, gizarte batean sakonak diren aldaketa guztiak eskolan oinarritu behar direla ahaztu gabe. Historiaren errelatoaren gudua da une honetan lehiarik

garrantzitsuenetako bat nire ustez, afera sozialak edota emakumearen ahalduntze prozesuaren atzetik, noski.

Euskal alderdi abertzaleak ere noraezean dabiltzala dirudi.



NAVARRA SUMA

Nafarroan ongi funtzionatu zuen Aldaketak, eta horri aurre egiteko eskuin guztia bateratua etorri da. Navarra Suma eskuin espainiarraren azken trintxera da

ALDAKETA

Askotan esaten dut: aldaketa, benetako aldaketa, soziologikoa da, eta kalean dago jada, ezin zaio buelta eman. Bestea, denbora kontua besterik ez da

Estrategia aldaketak ikusi ditugu azken hamarkadetan. Zein da, zure ustez, Euskal Herriak jarraitu beharreko bidea estatu burujabe bat lortzeko? Egitura administratibo bakoitzak -EAE, Nafarroa,

Iparralde- bere bidea/erritmoa jarraitu behar luke, ala estrategia bakarra, bateratua eta aldiberekoa izan behar du? Egingarri ikusten al duzu gaur egungo testuinguru politikoan?

Printzipioz nahiko garbi dirudi errealitate ezberdinen aurrean gaudela eta, ondorioz, logikoa dirudi estrategia eta erritmo ezberdinak behar direla pentsatzea.

Pazientzia behar da, baina gauzak mugitzen ari direla argi dago. Nafarroaren kasua begiratzen badugu, adibidez, aurreko legealdian mundu guztiak ikusi ahal izan du 'Aldaketak' ongi funtzionatu duela. Eta honi aurre egiteko Nafarroan gertatu da estatu osoan gertatu ez dena: eskuin guztia bateratua etorri dela. Horrexegatik beti esaten dut *Navarra Suma* eskuin espainiarraren azken trintxera dela, atzetik ez dagoelako deus...

Mila aldiz esan dut: aldaketa, benetako aldaketa, soziologikoa da, eta kalean dago jada, ezin zaio buelta eman. Bestea, denbora kontua besterik ez da... ■

Irudia eta komunikazio estrategia berriku dituzte Zubillaga-Oñati abere hiltegiak



Zubillaga
OÑATI
HILTEGI • ZATITZE
ZERBITZUA

WEBGUNE

www.zubillagahiltegia.com

YOUTUBE

Zubillaga Hiltegia

FACEBOOK

@zubillagahiltegia

FLICKR

Zubillaga Hiltegia

WHATSAPP

688 760 273

Irudia, webgunea eta komunikazio kanal berriak aurkeztu dituzte, bezero eta kontsumitzaileekiko harremanak sendotzeko asmoz

Zubillaga-Oñatiko abere hiltegia garai berrietara begira jarri da, irudi korporatiboa, webgunea eta komunikazio kanal berriak abian jarri. Irudi berriak ikuspegi modernoago bat eskaintzea bilatzen du, eta lerro moderno hori webgune berrian islatzen da; <https://zubillagahiltegia.com> atarian hiltegiak eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazioa ematen da, eta elkartearen sare sozialetara (Youtube, Facebook eta Flickr) salto egiteko estekak ere bai. Gainera, hilabeteko plazaratuko duen buletin digitalera harpidetzeko aukera ere badago bertan.

Zubillaga-Oñati hiltegiak aurkeztu duen beste berritasunetako bat *whatsapp* zerbitzua da. Aurrerantzean, hiltegiko bezeroek bertako arduradunekin kontaktu zuzena eduki ahal izango dute **688 760 273** zenbakiaren bitartez, edo *zubillaga@hiltegia.com* helbide elektronikoa erabiliz.

LEHEN SEKTORIA INDARTU

Zubillaga Hiltegia elkarteak 1983tik dihardu funtzionamenduan. Inguruko 12 udalerrik bultzatutako zerbitzu enpresa publikoa da egun, eta bereizgarri nagusizat baserriar eta abeltzainekin duen gertuko harremana da. Hiltze, zatitze eta banatze zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen die Euskal Herriko eta inguruko baserriar eta harakinei. Abereek ez sufritzea eta ahal bezain gutxi estresatzea garrantzitsua da kalitatezko haragia lortzeko, eta horretara bideratuta daude hiltegiko azpiegiturak eta lan teknikak, animalien ongizatea bermatuz. Urtean 9.000 inguru abelburu hiltzen dira bertan, eta 250.000 kilo haragi zatitzen.

Okelaren prozesamendu egokiaren bitartez baserriaren biziraupena bermatzen du Zubillaga-Oñati hiltegiak. Ildo horretan, slogan berria aurkeztu du. 'Okelaren jatorria baserria', baserriak gabe okela kontsumitzea ezinezkoa izango dela gogoraraziz. Hiltegiaren helburu nagusia haragiaren sektorea iraunkorra izatea da, eta prozesuaren bikaintasuna kalitatezko hainbat marken ziurtatzen dute (Eusko label, Giokela, Ekologikoa edo Asturiana). Baserrien biziraupenerako erreminta baliagarria da hiltegia.



<https://zubillagahiltegia.com>
webgune berrian hiltegiak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa aurkituko dugu



Inguruko 12 herrik (Debagoiena eskualdeko gehi Aramaio, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga) bultzatutako enpresa da hiltegia

Edukiontzi handiagoak auzo-konposta guneetan

Bidebarrieta-Ramon Irizar eta Bidebarrieta-Auzabarri guneetan hasieran jarri ziren 700 litroko ontzien ordez 1.000 litrokoak jarriko dituzte, aurretik herriko beste konposta-guneetan egin den bezala. Konpostagailu berriak sendagoak eta gogorrak dira eta, gainera, konpostatzeko prozesua hobetu egiten da, tenperatura handiagoa hartzen dutelako. Garbiagoak ere badira, arratoiek ezin dutelako sartu eta higienikoagoak ere bai, tenperatura altuagoa izanik, bakteriak ez direlako sortzen, edo lehenago hiltzen direlako. Konpostagailuak aldatzearekin batera, materia egituratzailea gordetzeko kutxak txikiagoak jarriko dira, irisgarriagoak.



Ia 12.000 euroko ekarpena egingo dio udalak Zubillagako hiltegiari

Iazko azaroaren 21ean egin zen batzar orokorrean Zubillagako abere hiltegiko aurtengo aurrekontua eta sozietatean partaide diren 12 herriek egin beharreko ekarpena onartu ziren. Guztien artean 180.000 euroko ekarpena egingo dute aurtun. Oñatiko udalari 23.500 euroko ekarpena dagokio, Zubillagako Hiltegia elkarteko kapitalaren %13ren jabe den alde-tik. Orain, lehen zatia (11.772€) ordainketa egitea erabaki da. Biztanle eta abelburu kopuruaren arabera kalkulatu da herri bakoitzak egin beharreko ekarpena.

Lehen sektorea indartzea proposatu du EAJk, klima aldaketari aurre egiteko

EAJren udal taldeak igorri duen prentsa oharrean dioenez, lehen sektorea erabakigarria izan daiteke Oñatin CO² isurketa helburuak betetzeko. Ildo horretan, bi proposamen zehatz aurkeztu zituen 2020ko aurrekontuetan: nekazaritza-abeltzaintzaren diagnostia egitea; eta klima aldaketari aurre egiteko herri mailako plana egitea. Lehen proposamena aurrekontuetan jasota dago eta lantzen dihardute jada, udal gobernuarekin batera. Bigarren proposamenari dagokionez, Andoni Altuna zinegotzi jeltzaleak uste du bioekonomia sustatzea eta basogintza indartzea lagungarria dela atmosferatik CO²a xurgatzeko, besteak beste. Zinegotzi jeltzalearen ustez garrantzitsua da, norbanako modura edo kolektiboki ingurumenean sortzen dugun arrastoaren kontziente izatea. Ildo horretan, jardunaldi batzuk antolatzeko asmoa adierazi du.

Auzoetako jaietan berdintasuna sustatu eta eraso sexisten aurka aritzeko elkarlana eskaini du udalak

Herriko jaietan berdintasun ikuspegia txertatzeko eta eraso sexisten kontrako kanpainak garatzeko udalak martxan duen plangintza aurkeztu zaie auzoetako jai batzordeetako kideei. Aholkularitza eta baliabideak eskaintzeaz gain, elkarlanerako espazio bat ireki nahi du udaleko Berdintasun sailak, auzo bakoitzak dituen behar eta eskarien arabera plangintza osatzeko asmoz.

DEIALDIAK

Kiroldegiko fitness gelarako eta POZ zerbitzuko orientazioa eta aholkularitza kontratatzea

Udalak lizitaziora atera ditu kiroldegiko fitness gelako orientazio zerbitzua eta Oñatiko Osasun Orientazio Zerbitzuko (POZ) kontratuak, 32.640 euroko (BEZ barik) aurrekontuarekin. Kontratua urtebeterako izango da, urtebeteko hiru epe luzatu ahal izango dena. Martxoaren 12a da proposamenak aurkezteko azken eguna. Oinarriak www.oñati.eus webgunean.

Kirol taldeentzako dirulaguntza deialdia

Herriko elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako (3.000€) eta kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko (10.000€) dirulaguntza deialdia egin du udaleko kirol sailak. Hilabeteko epea irekiko da eskaerak aurkezteko, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.

Adikzioen tratamendurako dirulaguntzak

Adikzio mota ezberdinak tratatzeko Oñatitik kanpora joan behar izaten duten pertsonen eta hauen laguntzaile eta senideen garraio gastuak arintzeko dirulaguntza deialdia egin du udalak. Informazio gehiago udal gizarte zerbitzuetan.

Larrialdietarako dirulaguntza deialdia

Gizarte bazterketa arriskuan dauden herritarrei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak. Energia eta mantentze gastuetarako, etxearen alokairurako, edo beharrek diren altzari edo etxetresnak erosteko eman ohi dira laguntza hauek. Eskaerak aurkezteko epea, azaroaren 29a.

Etxe partikularretan su detektagailuak jartzeko deialdia egin du udalak

80 urte izan eta etxean bakarrik edo 80 urte dituen beste lagunen batekin bizi direnei zuzenduta dago deialdia. Gazteagoek ere eska dezakete laguntza, mendekotasun, bakardade edo arrisku egoeran bizi badira. Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Guztira, herriko 120 etxetan dauden instalatuta su detektagailuak. Udalak hartzen du bere gain instalazio eta mantenu gastuak.

DEBAGOIENA GASTRONOMIKA

Menu eta pintxo bereziak dastatzeko aukera martxoaren 3ra arte

Debagoieneko mankomunitateko turismo sailak, Deba Garaia landa garapen elkarteak, eta eskualdeko zenbait jatetxe, taberna eta ekoizlek antolatuta, DEBAGOIENA GASTRONOMIKA jardunaldiez gozatzeko aukera izango dugu martxoan zehar.

Eskualdeko bost jatetxek (Oñatiko **Goiko Benta**, Arrasateko **Hilarion** eta **Santa Ana**, Bergarako **Lasa**, eta Antzuolako **Arin**) menu bereziak eskainiko dituzte jatetxe bakoitzak zehaztutako egunetan (ikus egitaraua QRan). Bildotsa eta ardi esnekiak oinarri dituzten menuak dira.



PINTXO IBILBIDEA

Menuez gain, bertako produktuz egindako pintxo bereziak dastatzeko aukera egongo da martxoaren 16tik 23ra, Antzuolako **Arin** jatetxean, Aretxabaletako **Dagda, losu** eta **Haizea** tabernetan, eta Arrasateko **Eroskiko** kafetegian.

Bestalde, martxoaren 21ean **Karapaixo Eguna** ospatuko da Arrasaten. Gainera, eskualdeko ekoizpen guneak bisitatzeke aukera ere egongo da: '**Ezagutu Gomiztegi baserria familian**' (martxoak 7 eta 28); '**Gatz egile egun batez**' (martxoak 14); '**Ezagutu Amatxo gaztandegia**' (martxoak 28); '**Ezagutu Zearreta baserriko barazkien ekoizpena**' (martxoak 29). Bisita hauetan parte hartzeko aurrez izena eman behar da: turismo@debagoiena.eus / 943 79 64 63



GOIKO BENTAKO MENUA

- Tomate eta ahuakate tartarra izokinarekin
- Ahate konfitatuko piper beteak
- Barazki krema fina barazki kurruskarekin
- Legatza frijitua zitrikodun maionesarekin
- Etxeko esne-bildotsa labean errea patata eta entsaladarekin
- Etxeko ardi esne gatzatua edo
- Txokolate beltz tarta mandarina sorbetearekin

Prezioa: 30€ (BEZ barne).
Ostirala, larunbata eta igandeetan. Haurrentzako menua ere badago

'GEROA BERMATUZ'

Enpresak transmititzeko prozesuari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Debagoieneko mankomunitateak



Enpresak eskualdatzeko prozesuari buruz informazioa eta orientazioa ematea da 'GEROA BERMATUZ' jardunaldien helburu nagusia. Enpresari jarraipena emateko dauden aukerak, enpresaren egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko jarraibideak, eta transmisio kasuetan gizarte-ekonomiaren aukerak azalduko dituzte bertan. Bi saio izango dira, **martxoaren 12an** eta **26an** (9:30-13:00), mankomunitateak Arrasaten duen egoitzan. Epe labur-ertainean enpresaren eskualdaketa aurrean egon daitezkeen enpresari eta langileei, eta interesa duten ekintzaile guztiei zuzenduta daude jardunaldiak. Informazio gehiago: www.debagoiena.eus/garapen-agentzia ■



5G teknologiak gure osasunean eta ingurumenean duen eragina aztergai

Teknlogiek, geo-ingenieritzak eta bizi-estiloak gure osasunerako duten arriskuez informatzeko sortu den INFORMA·TU elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen asteetarako.

Aurreneko ekitaldia **martxoaren 17an** izango da. Ekologistak Martxan taldeko Miguel Angel Martinez de Morentinek 5G teknologiarri buruzko hitzaldia emango du kultur etxean (19:00): '**La tecnología 5G y el Internet de las Cosas; salud y medio ambiente**'. Teknologia berri honek gure osasunean eta ingurumenean duen eragina azalduko da bertan.

Martxoaren 24an Pablo Cocaren '**Una amenaza invisible**' dokumentala ikusi ahal izango da kultur etxean (19:00). Mikrouhin teknologiak gizakion osasunean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak (Munduko Osasun Erakundeak berak onartu du minbizia eragin dezakeela) eta horren inguruan dauden interes ezberdinen (industria, politikariak, zientzialariak, kontsumitzaileak...) arteko talka aztertzen du.

Apirilerako beste bi ekitaldi iragarri dituzte, eremu elektromagnetikoek eta telefonia mugikorrek pertsonengan, zuhaitzengan eta animaliengan duten eraginari buruzkoak. ■

Koben Eguna ospatuko da martxoaren 15ean

► Arrikruzeko koba eta 'Lurpea' elkarteak batzen dituen beste zazpi haitzuloak erdi prezioan bisitatzeko aukera egongo da

LURPEA elkarteak osatzen duten zortzi haitzuloek antolatuta (Arrikruz-Oñati, Ekainberri, Isturitz, Mendukilo, Pozalagua, Sara, Zugarramurdi eta Urdazubi) Kobazuloen XI. Eguna ospatuko da martxoaren 15ean. Kobazuloetako sarrerak erdi prezioan egongo dira egun horretan eta, gainera, egun horretako bisitariek zozketa ezberdinetan parte hartuko dute: gau bat 'Haitz-Etxea' nekazalturismoan, produktu saski bat, eta kobak bisitatzeko 10 bono. Ikusi koba bakoitzak antolatu dituen ekintza berezien inguruko informazioa www.lurpea.eus webgunean.

HITZALDIA: 'NON DAUDE TXIMELETAK NEGUAN?' (Martxoak 7)

Martxoaren 7an bisita berezia egingo da Arrikruz-Oñatii eta Sandailiko kobazuloetan barrena. Zerynthia elkartearen eskutik, tximeleta harpetarren mundura hurbiltzeko aukera izango dugu; hauek identifikatzeko gakoak eta tximeleten garapen fase desberdinak ezagutzeko aukera egongo da. Aurrez erreserba egitea komeni da: 943082000.

'Varados', Grezian gatibu dauden errefuxiatuei buruzko dokumentala ikusgai, Hotz-Oñatiren eskutik

MARTXOAK 13, KULTUR ETXEAN, 19:00

lazko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen **Varados** film dokumentala ikusi ahal izango dugu hilaren 13an Hotz-Oñati taldearen eskutik. Grezian, errefuxiatuei laguntzen ari den Zaporeak GKEaren ekimenez, Helena Tabernak altsasuarrak egindako dokumentala da. Atenasko eraikin okupatuetan eta Lesbos zein Moria-ko errefuxiatu eremuetan Europako ateetan bizirauten duten milaka pertsonen egunerokoa jaso du Tabernak. "Guk hemen errefuxiatuen bizitza egiten dugu, jakin badakigu ez dugula amesten dugun hori lortuko. Finean, gure izena Errefuxiatu da" dio protagonistetako batek. Itxaropenari eutsi nahian, bizi baldintza estu eta larrietan bizi diren errefuxiatuei eta kooperanteei hitza ematen dien dokumental xamur eta beharrezkoa da *Varados*.

HITZALDIA. Greziako Lesbos irlako kanpalekuan egon diren Xabi Gesalaga eta Miren Zubeldia oñatiarrek hitzaldia emango dute **martxoaren 27an** (kultur etxean, 19:00). Han ikusi eta bizi izandako esperientziez hitz egingo dute. ■



smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



www.lurpea.eus



HILEROKO ZOZKETA SOLIDARIOAK errefuxiatuei laguntzeko

Errefuxiatuen aldeko hilereoko elkartasun azokak egiten hasi da Hotz-Oñati, hileko bigarren zapatuan. Ohiko produktuez gain, hilero hiru produktu sorta zozkatuko dituzte bertan. Azokan bertan ez ezik, ondoko kartelean adierazten diren denda, taberna eta zerbitzuetan erosi daitezke boletuak
LAGUNDU LAGUNTZEN !!!



HOTZ OÑATI
Boletuak leku hauetan salgai
Venta de boletos en los siguientes establecimientos

- Xagu	- Errota
- Helmuga	- Boga
- Eltsia	- Lapiko Gorri
- Igone ileapaindegia	- Garoa
- Errekaldeko denda	- Ikatz
- Artex ileapaindegia	- Bizi Poz
- Aranburu bitxitogia	- Trikitx
- Korosti kafeak	- Sillero
- MU (taberna)	- Sua
- San Lorenzo Okindegi	- Euro denda
- Anduaga farmazia	- Irizar estankoa



EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñati Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

EMAKUME EKINTZAILEAK

Marijo Etxegoien Arzuaga.
Berdintasun batzordea,
EAJren udal taldea

2019. urtean “betiko” hiru denda ezagun itxi zituzten Oñatiko erdigunean, (Atzeko kalean eta Kalebarrian), dendariak erretiroa hartu zutelako: Baio jantzi-denda, Juanitosa saltokia eta Kirrin mertzeria. Hiruretan, emakume ekintzaileak izan dira dendariak (eta gidariak), eta ibilbide luzea egin dute.

Esango nuke ekintzailetza bide malkartsua eta gogorra izaten dela, lanbidean —eta bizitzan— aurrera egiteko. Hala ere, poza eta atsegin handia ekarri ohi du: lana da, bai, baina norbera da nagusi; gus-tuko arloan jarduten du, pertsonalki nahiz profesionalki hazteko aukera eskaintzen du... Hainbat balio ere sustatzeko dira: arriskua hartzeko gaitasuna, ekimena, iraunkortasuna, konfiantza nork bere buruan, iraunkortasuna, lidergoa, sormena...

Emakumeen % 4,5 dira ekintzaileak. Gizonen artean, berriz, %5,6) erabakitzen du beren negozioa zabaltzea. Bai emakumeen, bai gizonen profila oso antzekoa da: 42 urte ingurukoak, goi-mailako ikasketadunak, graduondoren bat egindakoak (erdiak). Gizon eta emakume ekintzaile horiek antzeko arazoei egin behar izaten diete aurre: finantziario-eza, burokrasia eta gizarte-arauak... Ala-

baina, rol kulturalak tarteko, oztopo erantsiei egin behar diegu aurre emakumeok eta, esaterako, familia-kargen edo genero-estereotipoen zama handitu egiten zaigu. Ondorioz, ekiteko orduan, litekeena da geure buruan konfiantza galtzea, eta konfiantza hori txikituz joatea.

Horregatik da hain garrantzitsua emakume ekintzaileen lana balioan jartzea eta ikusaraztea, eta adibideak zuzenean ezagutzea. Oñatin, emakume ekintzaileen eredu asko daude (dendariak, autonomoak, profesionalak...), egunerokotasuna herritarrekin partekatzen eta belaunaldi gazteei halako ereduak eta erreferenteak behar dituzte. Emakume ekintzaile horiek guztiek merezi dute aitortu gabeko errealitatea aitortzea! Horixe dio ASPE-Glko Nere Ibañezek ere: “Gipuzkoako ekintzaile horiek guztiek merezi dute aitortzea. Gipuzkoako garapen ekonomiko, sozial eta enpresarialean eragiten dute. Eta ekarpen horrek “aintzatetsia izan behar du”.

BIZITZA DA HANDIENA

Alaia Baseta, Oñatiko Greba Batzordearen izenean

Urtarrilaren 30eko Greba Orokorrean planto egin zenu-ten, langabetu, autonomo, langile prekario, langile, ikasle, gazte, emakume*, pentsionista, eta orohar grebarekin bat egin zenuten herritar guztiei gure erreko-nozimendua adierazi nahi dizuegu.

Halaber, ezin ahaztu, Oñatiko dendari txiki eta taberna-riak, izan ere, jakin badakigu, kolektibo hauentzat norbere negozioa egun batez ixteak sortzen dituen eragozpenak asko direla.

Hau horrela izanik ere, lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokarekin bat egin eta ixtea erabaki zenuten. Dendak ixtean, agerian gelditu zen injustiziei aurre egiteko gure gizartea bizirik eta antolatuta dagoela.

Guri dagokigu orain elkar-tasun keinuak egiten jarraitzea. Horregatik kontsumitu dezagun Oñatiko denda txiki, taberna eta bestelako zerbitzuak eskeintzen dituzten dendetan.

Bizitzak erdigunera ekarri ditzagun! Guztiontzako bizitza jasangarriak nahi ditugu!.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Agur Otsaileko eguzkiari

Udaberri itxurako negua izan dugu aurten, bai behintzat otsailean, ohi baino lehorragoa eta tenperatura altuagoekin. Hala, arratsalde-ilunabar askotan argazkikoa bezalako oskorriaz gozatzeko aukera ederra izan dugu.



MAIALEN IRAZABAL

Eskerrik asko, Antxintxika Triatloia Taldearen izenean

Antxintxika Triatloi Taldeak triatloi egokituko saila sortu du, sorrerako helburuei eutsiz, kirolaren eta, bereziki, triatloiaren ateak herritar orori irekitzeko asmoz. Ildo horretan, iazko udazkenean zozketa bat jarri zuten martxan, Joseba Azkarate oñatiarrarentzat egokitutako gupil aulki bat prestatzeko helburuarekin. Zorionez, helburua bete ahal izan da (argazkian ikus daiteke bizikleta), jendearen erantzuna oso ona izan baita. Denera, 33 opari sorta zozkatu zituzten antolatzailleek, eta horiek ere banatuta daude jada (argazkietan daude saridunetako batzuk). Antxintxika taldeak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera lagundu duten herritar guztiei.



DEIALDIAK

► ZUHAITZ FERIXIA

Natur Eskolak antolatutako Ingurumen jardunaldien baitan zuhaitz ferixia egingo da martxoaren 7an, goiz osoan zehar, Foruen plazan.

► ZUHAITZ EGUNA ALOÑA INGURUETAN

Aloñako Lagunak taldeak eta Natur Eskolak antolatuta, Imanol Artola basozainaren laguntzarekin, haritzak eta lizarrak landatuko dituzte Aloñako magalean. Gainera, aurreko urteetako itxitura pare bat ere konponduko dituzte. Hitzordua, 10:00etan Unaimendin. Amaieran salda beroa eta Gomiztegiko gazta jateko aukera egongo da. Eman izena Fernando Maiztegiren tailerrean edo aloinalagunak@gmail.com helbidean.

► ERAKUSKETA

Ingurumen jardunaldien baitan, Natur Eskolako kideek prestatutako erakusketa ikusgai dago kultur etxean martxoaren 8ra arte Egunero, 18:00-20:00. Bi gairen inguruan antolatu dute erakusketa: 'Gure herrikideak: hiri-biodibertsitatea' eta 'Lemoizko borroka anti-nuklearra'.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

>> UDALEKU IREKIAK <<

Euskaraz eta gozamenetik disfrutatzeko aukera izango dugu udalekuetan. Beti bezala ekintza ezberdinak egingo ditugu haurren nahi eta gogoetara egokituz, hala nola, uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak, kanpaldia etab. Oñatiko Gaztelekua izango da gure topalekua, eta 4 urtetik 12 urteko haurrak parte hartu ahal izango dute. Iaz bezala, ordainketa kontu ezberdinetan eta interenet bidez egin ahal izango da. Hona hemen aurtengo udalekuetako beharrezkoa informazio guztia:

NOIZ: Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

ORDUTEGIA: 10.00-13.00 ADINA: 2008-2016an jaiotakoak (biak barne).

TOKIA: Gaztelekuan

MATRIKULA: 71,53 €, bigarrena 61,31 €, hirugarrena 51,09 €, laugarrenetik aurrera doan.

HAURREN IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 9tik 20ra (biak barne).

IZENA EMATEKO MODUA: Behin ordainketa eginda, ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak beteta, Udaletxera (07:30-15.30) edota Txaloka ludotekara (16.45-19.45) eraman beharko da, Online egiteko aukera ere egongo da. EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.

UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 9tik 20ra. HEZITZAILEEN FORMAZIO SAIOAK: Ekainaren 6 eta 7an. Derrigorra izango da formazio saioetara etortzea. BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Ludotekan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> ARTE UDALEKUAK <<

Aurten, bederatzigarrenez, Arte udalekuak antolatuko ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak. Arte Udalekuetan gaztetxoek marrazkigintzan, eskulturan, margogintzan eta abar aritzeko aukera izango dute.

NOIZ: Ekainaren 29tik uztailaren 24ra. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.00 ADINA: LH3tik DBH4ra, biak barne **TOKIA:** Eltzian. **MATRIKULA:** 71,53 €, bigarrena 61,31 €, hirugarrena 51,09 €, laugarrenetik aurrera doan. **HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** Martxoaren 9tik 20ra (biak barne). **IZENA EMATEKO MODUA:** Behin ordainketa eginda, ordainketaren ziurtagiria eta izen emate orria datu guztiak beteta, Udaletxera (07:30-15.30) edota Gaztelekura (17:00- 20:00 astelehenak ezik) eraman beharko da, Online egiteko aukera ere egongo da. EZ DA EPEZ KANPOKO IZEN EMATERIK ONARTUKO.

ARTE UDALEKUEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Martxoaren 9tik 20ra. BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO: Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK <<

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurten ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarriko ditu martxan martxoan. Diru-laguntzak jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira: Urteko programaketa – Elkartearen sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), ez-ohiko jarduerak. Martxoaren erdialdetik aurrera egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

>> GAZTE EMANTZIPAZIOARAKO DIRULAGUNTZAK <<

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarri nahi ditu aurten ere. Dena den, diru-laguntza lerro honen inguruan egiten ari den hausnarketa dela eta, ez dira martxan jarriko apirila baino lehen.

AGENDA: 20.03.6 Txipistin eta Gaztelekuko zerbitzuen ekintza bateratua, 17:00etan Topalekuan. I 20.03.7 Janaria eta Zumba, 17:00etan Topalekuan. I 20.03.13 Hileroko tailerra, 18:00etan Gaztelekuan. I 20.03.15 Pelota txapelketa, Larrañan. I 20.03.18 Txipistin eta Gaztelekuko zerbitzuen ekintza bateratua, 17:00etan Kuboan.

GAZTETXOEN JAIA

Gaztetxoek hartuko dute protagonismoa martxoan, Oñatzen 50. urteurrenaren baitan

Prentsaurrekoan esan moduan, gure sokaren gorulariak gara transmisioa, elkarlana eta dantza ditugulako oinarri, errotik lan egiten saiatuz. Horregatik ditugu 300 bat haur dantza taldean.

Haurrak izan zirenak dira gaur egun dantza taldearen gidariak, eta gaur haur direnak izango dira aurrerantzean gidaritza hartzeko gorulariak. Eta horrek aurrera egingo badu, berebiziko garrantzia dakar gaztoteenei merezitako protagonismoa ematea.

Haurren egunetan izan ohi dute dakitena erakusteko aukera, baina badira dantza taldean beste hainbat ekintza, dena ez da-eta dantza. Udazkenean egin ohi dute gaztetxoek irteera bat –mendira, jolaslekutara, abentura parketara...–, eta 50. urteurrena ospatzen dugun honetan, ere gura dugu beraiei zerbait ezberdina eskaintzea.

Eskaintza horretan datza martxoko egitarauak. Izan ere, hilaren 15erako prestatutako ekintzek gaztetxoek egun berezi bat izateko pentsatuta daude. Goizean altxorraren bila arituko dira. Hemen aipagarria da Oñatz familia noraino heltzen den: gurasoek antolatuko dute ekintza. Lan horrek erakusgarri egiten du zer den gure herriko dantza taldea. Behin altxorraren bila aritu ostean, bazkaltzera elkartuko dira, bai haurrak, bai irakasleak eta baita ere gurasoak. Bazkari ederra izango da 50. urteurrenaren buelta girotzeko.

Behin bazkaldu eta indarberritu ostean, dantza taldekoek gidatuta haurrek, gurasoek eta oñatiarrek, zelan ez, herriko plazan dantza gidatuak dantzatzeko aukera izango dute. Dantzak edonork egiteko modukoak izango dira, jakina, eta helburu dauka ekintza honek gaztetxoekin batera guraso, senide eta abarrek ere bat egitea. Izan ere, garrantzitsua da oso haurrek erreferentziatzat dauzkaten heldu horiek ere dantzan ikustea, dantzan aritzea ez da-eta haurren kontua soilik: dantzatu gabeko egunak alferrik galdutako egunak dira guztiontzat.

Egin ezazue bat, hortaz, bakoitzak aukeratzen duen martxoko ekintzetako batean, eta goza ezazue dantzari gaztetxoekin batera!

Aupa Oñatz!

Iñigo Murgiondo Agirre (Oñatz-50 Komunikazio taldea)

» **Martxoaren 15a** egun berezia izango da gaztetxoentzat. Goizez altxorraren bila ariko dira, eta elkarrekin bazkaldu ostean gidatutako dantzak egiteko aukera izango dute plazan, gurasoekin eta nahi duten herritar guztiekin batera



DEIALDIA

Martxoaren 24an, arratsaldeko 19:30etan, bilera irekia egingo dugu. Bertan jorratuko den gaia da urriaren 24an ospatuko den '50 URTE DANTZAN' ekitaldiaren antolaketa.

Azken 50 urteetan dantza taldetik pasa zareten dantzari guztiak zaudete gonbidatuta, 16 urtetik beherakoak izan ezik. Urriko ekitaldian egingo ditugun dantzak edonork egiteko modukoak izango dira, jakina. Anima zaitetz!

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernández

Zure ETXEA eguneratu gureeneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com





Prozesadorea ebaltzen da gaur egun piñua bota, kurtiu eta zuriketako.

Basogintzaia (eta 7)

ARO MODERNUA

ERREPORTAJIA / ROBERTO ALTUNA ERLE

1960ko HAMARKADIA: BASERRI MUNDUAREN GAINBEHERIA

Hamarkada horretan, nabarmenen, herriko baserrixak hustuaz eta jareaz fan ziran, eta auzuetako jentia saillian etorri zan kalera bizi izatera.

Lezesarriko etxiak (Roke Azkunekuak), eta Errekalde eta Olakua auzuak, esate baterako, ordukotxiak dira, eta hango etxiak erosteko basuak eretsi bihar izan ziran, piñu maritimo espeziekuak, batez be. Ikazkintzaian be lan asko egin zan, horretarako basuetako pagadui, hariztui eta gaztaiñaduixak ebalitta.

Baserrixak hustu orduko, bertako zelaixak, soruak eta iraduixak piñuz jantzi ziran, egunen batian lur horreiri etekintxo bat etarateko asmotan. Ondorixoz, bai ingurua, bai bizimodua ziharo aldatu ziran, eta baserrixa astegoixenatarako bizileku eta fabrikatik etorren soldatiaren osogarri geratu zan.

Botatoko piñuak emundako dirua, beste gauza batzuen artian, kooperatibetako sarrerria

ordainketako ebali zan. Hortik dator esaeria, *“Mondraguen asmau eueilla kooperatibia, baiña dirua Oñatin eguela”*. Kooperatibak martxan ifintteko diru premiña haundixa eguen, eta, 1960ko hamarkada horretan, baserriko jentia XIX. gizaldittik aurrera euren arbasuak sartutako piñu maritimo danak bota zittuan, egunian baiño egunian prezio hobia egitten eueillako (orain hurrunguan esan geben moduan, marketerixia egitteko, esaterako) eta kapital hori kooperatibetako sozio egitteko eta kaleko etxiak erosteko ebali eben.

Aurrekomendittarrak, esaterako, kalian



1960xan sortu zan Lana kooperatibia, J.M. Arizmendiarietaren pultzaraz

samurtxuago bizi zeikiela ikusi ebeñian, dana bertan behera itzi eta kalera jaitsi, eta mundu horren gainbeheria, edota, desagerketia be, kasu askotan, ekarri euen.

Fenomeno desbardiña izan arren, XIX. gizaldixaren erdi inguruan be, industrializaziñuaren hasieretan, herriko oso jente aberatsak lurraren etekiñetatik egindako dirua ifiñi eben zerraila-negozio bat herrixan bertan sortzeko. Ernamuin hartatik, XX.aren hasieran, Mondragueko ‘Union Cerrajera’ (Zerrajerria) eta Bergarako Altos Hornos (Labe garaixak) fabrikak jaixo ziran.

LANA KOOPERATIBA ALKARTIA

Lana kooperatibia 1960xan sortu zan. Jose Maria Arizmendiarieta Mondragon Corporacion Cooperativa kooperatibiaren sortzaillaren pultzaraz, baillarako baserrittarrak batu ziran euren produktu batzuk merkaduan ifintteko asmuarekin: egurra, esnekixak eta okelia, hain justu be. Gaur egunian gordeten dan LANA akronimua eurak jarri otsain kooperatibiari lau izen honein lehenengo letrak hartuta: Leintz-Aramaixo Nekazarixen Alkartia.

Handik denpora batera, gaiñerako lehengaixak alde batera itzi, egurra lantzeiari ekin, eta zerrerixiarekin bakarrik jarraitu eben. Hola, egurra, pelletak, muebliak edo altzarixak eta eraikuntzarako oholak eta produktuak egitten hasi zan. Une hartan, lauhun baserrittar-bazkide izatera aillegau zan. 1990ian, baiña, aldaketa nabarmena etorri zan bazkide horreik alde egin eta kooperatiba industrialia izatera pasau ondoren, eraikuntzarako oholak egitten hasi zanian, hain zuzen be.

Aldaketa hori baiño gogorragua izan zan 2000. urtekua, zerria itxi eta egurraren bigarren transformaziñuari bete-betian ekin otsanian; izan be, eraikuntzan ebaltzen diran hiru geruza edo kapako oholak egitten hasi zan, zeregin horretarako puntako teknologixia ebalitta.

Gaurko egunian bi lantegi dittu LANAk, Oñatin amia, edo, etxe nagusixa, eta Txekiar Errepublikan kumia, edo, produkziño plantia. Lantegi horreittan hiru geruzetako oholak egittiaz gain, H2O habe edo bigia be egitten dau, bixak eraikuntzarako. Gaiñera, sobran geratutako zerrautsagaz pelletak



Eskiderra, orugia eta egur karriurako kamioia, gaur egun basogintzaian ebaltzen diren tresna eta ibilgailuetako batzuk dira.



Gaur egun basolanetan diharduein langille gehixenak Europako ekialdetik eta Hego Ameriketatik etorritakak dira.

Arriskuak eta urtenbidiak



Klima aldaketaren eraginez, seguruen-nera, gaitzak agertu eta ugaritu dira gure basuetan. Bi aittatuko dittugu: prozesio-naria izeneko harra, eta *Dothistroma pini* y *Lecanosticta acicola* ondduak. Horreik 70eko hamarkadan agertu baziran be, azkeneko urtietan atmosferan dague berotasun eta umedade haundixagua-gatik ikaragarri zabaldu dira, eta gure basuetako koniferak hiltten dabiltz.

Gure basuen etorkizuna, koniferen eta hostrozabal batzuei dago-kixenez, gaitzen mendian dago. Zoritzarrez, egoerioni etxako egun batian bueltia emungo, baiña danoiri eragitten doskun hil ala biziko gaixa danez, mereziko leuke egoeria bideraketan fateko pausu senduak emutia, erakunde publikuen konpromiso eta laguntziagaz landutako baso-politika egogixaren bittartez, eta baso atlantikia berreskuraketako lanian dabillen funda-ziñuarekin bat egindda. ■



egin eta saltzen dittu. Hori dana egitteko, bertako eta kanpoko egurra darabil.

LAN EGITTEKO ORAINGO ERIA

Gaur egun bai Oñatin, bai Gipuzkoa eta Bizkaia danian, oso lurjabe gutxi faten da bere basua gobernaittera. Normalian basolan guztiak, hau da, egurra bota, basua garbittu, ondoren landatu, eta, garaixa datorrenian, mihastu, iñoren eskuetan izten dira, basolanetan

diharduein azpikontratautako enpresen esku, hain justu be. Eurakin lanian dabiltezin langille gehixenak —eskulan zuzena— atzerritik hona etorritakak dira, bai Europako ekialdetik: ukrañarrak, errumaniarrak ..., bai Hego Ameriketatik: ekuadortarrak, nikaraguarrak, boliviarrak, hondurastarrak ...

Basolanak eskaketan dittuen espezializaziñua eta dedikaziñua, batetik, eta dakon arriskua eta kostua, bestetik, eragin daue lan hori enpresa

espezializau batzuen eskuetan jaretia, eta kultura hori ixixa galtzeia gure baserritako belaunaldi gaztien artian.

Hori dala eta, gaur normala da piñuak emundako dirua lan hori egitten dauein enpresairi emutia, hau da, parra egittera fatia basuak ondo eukittiarren; eta, bestetik, baso-sail asko berriz be landatu barik izteia arrazoi asko dirala-eta: jarraipenik eza, kostua, gaitzen ondorioxoz zer komeni dan sartzeia ez jakittia, eta abar. ■

ESKER ONEZ: Eskerrik asko Jerardo Elortza, Aizkorbe Azpiko Koldo Zumalde, Tirueneko Bernabe Belategi, Simoneneko Pedro Ugarte, Osiñagueneko Bixente Unzurrunzaga, Erbiñeko Joxe Bikuña, Antoneneko Pako Idigoras, Bixaingo Joxe Inza, Osiñagako Bittor Altube eta Urgaiñeko Joxe Arrizabalaga barriemuilliri basogintzaiaren gaixa hobeto ezaguketako emundako informaziño baliotsuagatik. Era berian, fotografixak eskuraketan lagundu doskuein Jabier Anduaga arotzari, Jabier Aldasorori eta Fernando Maiztegiri, eta ohar-egille guztiari.

XABIER NARBAIZA IRIONDO**Arrasate Rugby Taldeko jokalaria**

« **Kirol bortitza da errugbia, baina gizalegez jokatzeko da** »

Denboraldi bikaina egiten ari da Arrasateko Kanpanzar ART errugbi taldea Euskal Ligako bigarren mailan. Liga erregularreko partidu guztiak irabazita, igoera fasean murgilduta dabil orain, lehen mailara bueltatzeko (iaz galdu zuen kategoria) helburu bakarrarekin. Taldean diharduen Xabi Narbaizarekin (Oñati, 1997) izan gara, gurean tradizioz ez duen kirol honi buruz hitz egiteko.

Bosgarren urtea du Narbaizak Arrasate Rugby Taldean (ART). Aurretik saskibaloian aritu zen, baina 18 urterekin errugbia probatzea erabaki zuen, urte hartan Hegoafrika jokatu zen munduko txapelketako irudiek erakarrit. Arrasateko atea jo zuen, probatzearen, eta bertako senior mailako taldean dihardu orduz geroztik.

Euskal Ligako bigarren mailan jokatzeko ari da Kanpanzar-ART.

Iaz jaitsi zen lehen mailatik, eta nagusitasun handia erakusten ari da aurten. Liga txapelketako partidu guztiak irabazi ditu eta igoera fasean orain arte jokatu dituen bost neurketak ere bai. "Iaz kategoria galdu arren, lehen mailan jokatzeko aukera eskaini zigun federazioak, baina ekipoa asko gaztetu denez (belaunaldi aldaketa bat egon da, zortzi mutil igo dira Jubenil mailatik) bigarren mailan jokatzeko erabaki genuen,

«**Partidua amaitu bezain pronto 'hirugarren zatia' jokatzeko da beti; etxeko taldeak edatekoa eta luntx moduko bat eskaintzen dio beste taldeari eta elkarrekin egoten gara**»

oinarria sendotzeko asmoz, baina behetik igo diren mutilek oso maila ona dute, bai taktikoki eta baita teknikoki ere, eta erraz samar ari gara nagusitzen. Iaztik hona indar fisikoa galdu dugu, baina kalitatean hobera egin dugu" dio Narbaizak.

Igoera faseko lehen sailkatua zuzenean igoko da lehen mailara eta bigarren sailkatuak promozioa jokatu du lehen mailako azken-aurrenekin.

AURRELARI POSTUAN

Errugbi talde batek 8 aurrelari izaten ditu. *Melé*-an jartzen diren jokalariek izaten dira, eta hor jokatzeko du Narbaizak, bigarren edo hirugarren

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua komprometuz gabe:

✚ Heriotza	✚ Istripuak	✚ Etxebizitza
✚ Autoak	✚ Ontziak	✚ Aurrezkia
✚ Bizitza	✚ Osasuna	✚ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



Ezkerrean, ARTren aurkari zuzena den Uni Bilbao taldearen aurkako partiduko melé bateko irudia. Goian, Narbaiza baloiarekin aurrera egin nahian. (Argzk.: Kanpanzar ART)

lerroan. Indarra egitea, metroak irabaztea, aurkariak plakatzea, kontaktua bilatzea izaten da bere lana, lerroko jokalariek ('Hirulaurdenak') korrika egiteko espazio gehiago izan dezaten. *Touch* edo alboko sakeetan ere parte hartzen du, salto egiten edo taldekideak jasotzen baloia hartzeko (ezkerreko irudian ikusten den moduan).

Kontaktu handiko kirola da errugbia, baina gizalegez eta aurkaria errespetatuz jokatzen dela dio Narbaizak. "Beltzune edo zauriren bat etxera eramatea ohikoa da, baina partidua amaitu bezain pronto 'Hirugarren Zatia' izenez ezagutzen dena egoten da; etxeko taldeak edatekoa eta luntx moduko bat eskaintzen dio beste taldeari, eta denok elkarrekin egoten gara. Kirol bortitza da, bai, baina badakigu zertan gabiltzan. Zelaian gertatutakoa han geratzen da". Hagin- eta sorbalda-babesak eraman ohi dituzte jokalariek, eta kaskoa ere bai batzuek, Xabik bezala. "Belarriak babestearren jartzen dut kaskoa, *melé*-etan

burua taldekideen izter artean sartu behar izaten dugulako".

Kanpanzar ART-k Mojategin jokatu ohi ditu etxeko partiduak, larunbat arratsaldetan (16:00). Hurrengo partidua martxoaren

**MARTXOAREN
14AN JOKATUKO DU
ETXKO HURRENGO
PARTIDUA
ART TADEAK
MOJATEGIN (16:00)**

14an jokatuko dute. Aukera polita, beraz, kirol hau bertatik betara ikusi eta Narbaizaren taldeari bultzadatxo bat emateko lehen mailara igotzeko ahaleginean. ■



ERRUGBIA OÑATIN Gure herrian ere izan zen errugbi talde bat 1970. hamarkadaren hasieran. Bilbo aldean asko jokatzen zen errugbian garai hartan, eta bertan ikasten ziharduten herriko hiru gaztek butzatuta sortu zen taldea. San Lorentzon egiten zituzten entrenamenduak, baina joko-zelairik ezean, Hernanin jokatzen zituzten etxeko partiduak. Teknika handirik ez omen zuten, baina indarra soberan. Lau denboraldi egin zituzten, eta azkenengoan Gipuzkoako Kopa irabazi zuten Atletico San Sebastianen aurka.


TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Bizikleta ibilbide berria estreinatuko du Oñatiko Duatloiak

Santipillauko aldapa (birritan) eta Urtiagainera igo beharko dute lehiakideek



Irene Loizate eta James Michael, iazko irabazleak

STREAMING BIDEZ ZUZENEAN JARRAITU AHAL IZANGO DA

Iaz bezala, aurten ere streaming bidez ikusi ahal izango da proba zuzenean. Antolatzaileek zazpi kamera eta bi motor erabiliko dituzte horretarako eta LaLigaSports (www.laligasports.es) kirol plataforma ezagunaren birtartez zabalduko dute. 16:15 hasiko da emanaldia eta emakume eta gizonen aurreneko hiru kirolariak iritsi bitartean luzatuko da. Uneoro jarraitu ahal izango dira lasterketa buruak eta plazako trantsizio guinea. Narratzaile eta duatloian espezialista diren komentarietekin osatuko da emisioa.

Martxoaren 28an jokatu da Oñatiko XVIII. Duatloia, distantzia motzekoa (10 km. korrika / 38 km. bizikletan / 5 km. korrika) eta berritasunekin dator, bizikletako zirkuitoari dagokionez. Lehen korrika saioa amaitu ostean, bizikleta hartu eta San Prudentzioraino joango dira duatletak, eta itzulerakoan Santipillauko aldapa motz baina gogorra igo beharko dute. Ondoren, kanposantutik behera saihesbidera irten eta Urtiagaineraino joan beharko dute, 180 graduko buelta eman eta Oñatira jaisteko. Bigarren bueltan Santipillau gainetik zuzenean herriko plazara jaitsiko dira duatletak, azken korrika saioari ekiteko.

Arratsaldeko 16:30etan hasiko da lasterketa, eta bi orduz itxita egongo da Oñati eta San Prudentzio arteko errepidea,



Babesle eta arropa berriak estreinatuko dituzte Aloña Mendiko duatletak

eta ordubetez Oñati eta Arantzazu artekoa (Urtiagaineraino).

Oñatiko duatloia Euskadiko zirkuitorako puntuagarria izango da, eta erkidegoko espezialistarik onenak batzea espero dute antolatzaileek. Iaz, James Michael (1:48:55) eta Irene Loizate (2:06:43) izan ziren irabazleak.

DUATLOI TXIKIA

Aurreko bi urteetan bezala, aurten ere, Aloña Mendi eta Eskola Kirolak antolatuta,

Duatloi Txikia jokatu da egun berean, goizez. Benjamin (500m./1500m./250m.) eta Alebin (1000m./3500m./500m.) mailatan izango dira lasterketak, 11:30etan hasita. Informazioa: www.oñatikoduatloia.com webgunean. ■

TXIRRINDULARITZA



MARTXOAREN 14an ESKOLARTEKO PROBA OÑATIN. Otsailaren 16an aurkeztu zituen Aloña Mendiko txirrindularitza sailak denboraldi berrirako taldeen aurkezpen. Denera 41 txirrindulari izango ditu, Benjamin, Alebin, Infanil, Kadete eta Junior mailatan. Eskolarte mailako txirrindulariek martxoaren 14an ekingo diote denboraldiari etxean, Unibertsitate inguruan (16:00) jokatu den lasterketan. Bestalde, Junior mailan, Danel Casaiek urteko lehenengo podiuma lortu du, hirugarren helmugaratu baitzen denboraldiko aurreneko lasterketan, Eibarren.




Urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu ditu lone Elortzak munduko sokatira txapelketan

Gasteizko Badaiotz taldean aritzen den lone Elorza sokatiralari oñatiarrak urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu ditu Letterkenny (Irlanda) jokatu berri diren goma gaineko munduko txapelketetan. Urrezko bi dominak Badaiotz taldearekin eskuratu ditu, klubaren arteko txapelketetan, 500 eta 540 kilo arteko mailetan. Zilarrezkoa berriz, Euskadi ordezkatzuz, nazio arteko txapelketan. Taiwanen aurka galdu zuten finala.

Horrenbestez, urrezko bost domina lortu ditu Elortzak munduko txapelketetan; aurreneko biak 2002an eskuratu zituen, eta beste bat 2016an. Beste kolore bateko domina gehiago ere baditu etxean sokatiralari oñatiarrak. Maddi eta Haizea alabekin dago argazkian; hauek ere hasi dira lehenengo entrenamendu saioak egiten Badaiotz sokatira taldearekin, amaren bidea jarraitzeko helburuarekin.

Aloña Mendiko igerilariak bikain. Aldekoak eta Sagastak minimak lortu dituzte Espainiakorako.

IGERIKETA. Gipuzkoako neguko igeriketa txapelketan hainbat domina lortu zituzten Aloña Mendiko igerilariak. Infantiletan **Ane Madinak** urrezko, zilarrezko eta brontzezko bana kolporatu zuen (50 Libre / 100 Bizkar / 200 Bizkar), **Ekhi Lazkanoiturburuk** zilarrezko bi (100 eta 200 Bizkar), eta brontzezko bana **Ane Pelayok** (50 Krol) eta **Enaitz Sagastak** (200 Tximeleta). Junior mailan, **Kepa Aldekoak** urrezko eta zilarrezko bana (100 eta 200 Bizkar), **Sara Isasisasmendik** zilarrezko bi (100 Bizkar / 200 Estilo) eta brontzezko bi (100 Estilo / 100 Bular) eta **Elder Ibabek** brontzezkoa 400 Libreetan. Errelebo probetan ere (4x200 Libre) brontzezko domina bana lortu zuten neskek eta mutilek. Bestalde, Infantil mailako Euskal Herriko txapelketan **Enaitz Sagastak** brontzea lortu zuen 100 Bizkarrean, eta Espainiako txapelketarako minima 200 Bizkarrean; **Irati Delgadok** zilarra 200 Bizkarrean eta **Izar Mendizabalek** brontzea 400 Estiloetan. Bestalde, **Kepa Aldekoak** Gipuzkoako selekzioarekin Bartzelonan jokaturako proban Espainiako minima (2:15:95) lortu zuen 200 Bizkarrean.



Uribarri irabazle Kobaz Koba trailean

MENDI LASTERKETAK. Ainara Uribarri korrikalaria azkarrena izan zen otsailaren 9an Zestoan jokatu zen Kobaz Koba Trailean, 15 km.-ko distantzian (+700 m.). Korrikalari oñatiarra 31. tokian helmugaratu zen (1:24:33) sailkapen orokorrean, eta lehenengo emakumezkoen artean. Bestalde, Xabi Lete 3. sailkatu zen Antzuolako 8 Miliak lasterketan.



Aralar mendikatea, aldenik alde

MENDI IRTEERA. Martxoaren 15ean izango da Aloña Mendik hilabete honetarako antolatu duen irtetara. Aralar mendikatea zeharkatuko dute, aldenik alde. Albiko parkinetik abiatuta, Aralarreko goi lautadara igo eta Hirumugarrietako tontorretik (1430m.) Malloen ikuspegi ederraz gozatzeko aukera egongo da. Jeitsiera luzea, belardietatik Txindoki aldera eta Larraitzera. Zailtasun tekniko gabeko ibilaldia da, baina luze xamarra (19km). Izena emateko (10€) azken eguna, martxoak 12, osteguna, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Irtetara, goizeko 7etan, postetxean. Federatuta egon behar da.

Axier Alonso eta Sara Arregi podiumean

MENDIKO ESKIA. Axier Alonso bigarren sailkatu zen Panticosan (Aragoi) jokaturako Euskal Herriko mendiko eskiko txapelketan. Euskadiko selekzioa ordezkatzuz aritu zen eskia-tzaile oñatiarra. Bestalde, emakumezkoen Jubenil mailan Sara Arregi Zubizarreta gazteak (Aloña Mendi) garaipena lortu zuen.

Futbol kanpusa pazko astean

FUTBOLA. Aloña Mendik antolatuta, 2009, 2010 eta 2011n jaiotako neska-mutikoei zuzendutako kanpusa egingo da Oñatin apirilaren 14tik 17ra (9:00-13:00). Informazio gehiago: 634471365 / 645094111 / alonafutboludalekuak@gmail.com.

BERATU

musika

MARTXOAK 25 - 29

jaialdia

MUSIKAREN ALDE HURBILA

2018an sortu zenetik Beratu Musika Jaialdia Euskal Herrian sortzen diren musika ezberdinen topaleku bilakatu da. Bide horretan hainbat proiektuekin kolaboratzeko aukera izan du: Musik / Fem, Ahotsenea, UsoPop jaialdia, Jazpana jaialdia, Lekuek jaialdia, etab.

Guzti hauengandik jasotako esperientziari esker 2020an egingo den hirugarren edizioan Beratu Musika Jaialdiak nortasun propioa osatu duela esan daiteke. Edonork parte hartu dezakeen lantaldearen oinarri finko bati esker, Euskal Herriko musika jaialdi txikien zirkuituan leku bat egitea lortu du.

2020ko Beratu musika jaialdia martxoaren 25etik 29ra egingo da eta ohikoa den bezala Oñatiko gune ezberdinak erabiliko dira horretarako: Kultur Etxea, Gaztetxea, San Martingo Ermita, Eltzia eta Lazarragako lorategia. Jaialdia leku guzti hauetan egiteko aukerak Oñatiko kultur ekosistema aberatsa erakusten du.

Ondorengo QR-an aurkituko duzu aurtengo Beratu jaialdira etorriko diren taldeen musika entzuteko aukera.



EGITARAUA

MARTXOAK 25

SANTA ANA, 19:00
Markak (5€)

MARTXOAK 27

GAZTETXEA, 22:00
Sua + Los Sara Fontán
(5€)

MARTXOAK 28

ELTZIA, 10:30
Yoga musikatua

MARTXOAK 28

ELTZIA, 11:00
'Componer jugando a cartas' tailerra

MARTXOAK 28

SAN MARTINGO
ERMITAN, 18:00
Möi Möi Orkestra
Magikoa

MARTXOAK 28

ELTZIA TABERNAN,
21:30
Afari musikatua:
Joseba Irazokirekin

MARTXOAK 29

LAZARRAGA
LORATEGIAN, 12:30
Hakima Flissi

MARTXOAK 29

SAN MARTINGO
ERMITAN, 18:00
Aitor Etxeberria +
Gaizka Isunza



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

'MARKAK'

Martxoak 25, asteazkena
Santa Ana aretoan, 19:00 / 5€



Aitor Etxebarria musikari gernikarrak 'Markak' dokumentalerako konposatutako soinu banda zuzenean aurkeztuko du. Hannot Mintegiak zuzendutako filmean Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrenean bizkaitarrek jasandako tragedia kontatzen da. Filmeko irudiak ere ikusi ahal izango dira Kultur Etxean egingo den emanaldian.

YOGA MUSIKATUA

Iñigo Ugarte eta Tommaso Galatiekin

Martxoak 28, larunbata
Eltzia, 10:30-11:15



Iñigo Ugarte eta **Tommaso Galati** musikarien eskutik, 75' yoga saioa. Gitarra eta baxuz gidatutako bidaia sonikoa, mugimendu eta arnasketa kontziente eta meditatiboa landuz. Dohako saioa. Izen ematea beratujaialdia@gmail.com helbidera idatziz. Yogan esperientziadunei zein hasiberriei zuzenduta (beharrezkoa ez bada ere bakoitzak bere esterila ekar dezake).

SUA + LOS SARA FONTÁN

Martxoak 27, ostirala
Gaztetxean, 22:00 / 5€



Sua taldea Maruritik dator eta 2019an Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi zuen. Horren ondorioz Bilbao BBK Live jaialdian zuzenekoa eskaini zuen. 2019ko udazkenean Oñatin aurkeztuko duen 'Ordu beltzak' (Airaka 2019) lehendabiziko disko luzea argitaratu zuen. Sara Fontán biolin-jotzaileak eta Edi Pou (Za!) baterijoleak osatzen dute **Los Sara Fontán**. Inprobisazioa, punk-a, rock-a eta melodien arteko nahasketetatik sortutako doinuak eskainiko dizkigu Bartzelonako bikoteak.

COMPONER JUGANDO A CARTAS

tailerra Los Sara Fontán-ekin

Martxoak 28, larunbata
Eltzia, 11:00



Los Sara Fontán Bartzelonako bikoteak tailer berezia eskainiko du Eltzia Musika gunean. Bertan inprobisatzeko metodologia ezberdinak aztertu eta erakutsiko dira horretarako espresuki sortu duten joku bati esker.



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

MÖI MÖI ORKESTRA MAGIKOA

Martxoak 28, larunbata
San Martingo ermita, 18:00



Doninbane Lohitzuneko **Möi Möi kolektiboak** musikaren inguruan hainbat proiektu sortu ditu urteetan zehar: *BaleaPop* jaialdia antolatzeaz gain hainbat disko ere argitaratu ditu (*Lumi*, *Odei*, etab.). Oraingo honetan *Orkestra* bezala aurkeztuko dira gurean: *Fusible* musika taldeak babestuta azken hamarkadetan ikur izan diren hainbat abestiren bertsioak eskainiko dizkigute.

HAKIMA FLISSI

Martxoak 29, igandea
Lazarraga lorategian, 12:30




tomhagenphotos

Hakima Flissi abeslari gazteak (Bilbo 1997) erritmo urbanoetara gonbidatuko gaitu bere emanaldi sendoarekin. Soul, R&B, reggae, funk edo afrobeat bezalako doinuak nahasten dira bere abestietan. Talentu handiko abeslaria da eta horren lekuko izan dira BIME Live, Bilbao BBK Live, Irun Zuzenean edo Monkey Week bezalako jaialdietan eskaini dituen kontzertuak.

AFARI MUSIKATUA: JOSEBA IRAZOKI

Martxoak 28, larunbata
Eltziako taberna, 21:30



Beratu musika jaialdiaren hirugarren edizio honetan estraineko ekimen bat dugu: afari musikatua. Jatekoa eta zuzeneko musika elkartuko ditugu proiektu berri honi esker. Horretarako gonbidatu berezi bat izango dugu gurean: **Joseba Irazoki** musikari Beratarra. Bakarlari moduan etorriko da oraingo honetan eta Eltziako tabernan eskainiko den afari berezi bati soinu banda jarriko dio.

AITOR ETXEBERRIA+GAIZKA ISUNZA

Martxoak 29, igandea
San Martingo ermitan, 18:00



Gaizka Insunza Audience taldean ezagutu genuen. Hainbat proiekturekin kolaboratu izan du bere ibilbidean zehar: *Ainara LeGardon*, *Capsula*, *Anari*, etab. 2019an bakarkako lehendabiziko diskoa kaleratu zuen non *Brian Wilson* edo *Elvis Costello*ren eraginarekin unibertso propioa osatu duen. 2017an Audience-kin izan zen gurean eta oraingoan bakarka arituko da.

Aitor Etxebarria gernikarrak 2019ko lan nabarmenetakoa argitaratu zuen: *Nihilism Part 1* (Mute/El Segell). Giro zinematografikoak eskaintzen dituzten 9 abesti biltzen dira bertan. Tentsioa, barealdia eta iluntasuna elkarrekin datoz bidaiatzera gonbidatzen gaituen gustu haindiko lan honetan. Elena Setienen kolaborazioa izan du 'Lihle too soon' abestian.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

HITZALDI-SOLASALDIA PAKO ARISTIREKIN

'EUSKARA, ITXAROPEN BAT IRAGANARI'

Euskararen garapen historikoa beheraka doan arraia batek erakusten du, Euskal Herria botere politikoa galtzen joan zen neurrian. Mila urtetan gertatu diren une klabe batzuek aztertzea ezinbestekoa da gaurko egoera ulertzeko. Hizkuntza bat ez da, hainbeste, norbanakoaren borondate kontua, arazo kolektibo bat baizik, soziala, nazionala. Gizarteko esparru askotan inplikazioak dituena, eta herri baten nortasuna definitzeko balio duena. Gaur egun euskara zergatik dagoen horrela esplikatzeko saiatuko gara bidaia baten bitartez..



Udal Euskaltegian, **martxoaren 12an**, osteguna, 18:00etan. Ekitaldi irekia herritar guztientzat.



Oihana Aranak irabazi du Dizdaitte txapelketa

BERTSOLARITZA Txinparta bertso eskolako gazteek antolatutako Dizdaitte txapelketa Oihana Arana eskoriatzarrak irabazi du. Parekotasuna izan zen nagusi otsailaren 29an Antixena gaztetxean jokaturako finalean, baina Eskoriatzako bertsolariak batu zituen puntu gehien (272); Txaber Altube (266,5), Ane Zuazubiskar (265,5), Maider Arregi (262,5), Eli Pagola (259,5) eta Urko Arregik (249) osatu zuten finaleko seikotea. Bertsolariak eskerrak eman zizkieten antolatzaileei eta txapelketako hiru saioak jarraitu dituzten bertsozaileei, baina, aukeran, txapelketak baino bertso saio arruntak nahiago dituela adierazi zuen txapeldunak agurrean.

Kurdistaneko istorioak, haur zein helduentzat

IPUIN KONTAKETA Udal liburutegiak antolatuta, Kurdistaneko istorioak ezagutzeko aukera izango dugu **apirilaren 1ean** Alaitz Muro Larizgoitia kontalaria eta Nabs Hadi abeslariaren eskutik. Istorio hunkigarriak eta inspiratzaileak kontatuko dituzte; Kurdistaneko gerra, tradizioa eta Nabs Hadi-ren bizi esperientzien testigantza. Alaitz Murok ahotsa jarriko die istorioei eta Nabsek kantuz jantziko ditu kontakizunak. Bihotz-arimak konektatzeko eta ahaztuta dagoen, eta egon den lurralde baten testigantza eta memoria gurera ekartzea da ipuin-kontaketa saio honen helburua.

Bi emanaldi egongo dira: bata umeentzat (+7 urte), 17:00etan udal liburutegian (martxoaren 16tik aurrera gonbidapenak banatuko dira), eta bestea helduentzat, 19:00etan helduen liburutegian.



**Nafarroa
hegoaldeko
euskalgintzari
laguntzeko
kanpaina abian da**

'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' lelopean, abian da aurren ere euskara ofiziala ez den Nafarroako eremuetako euskalgintzari laguntzea helburu duen ERRIGORA kanpaina.

Nafarroa hegoaldeko oli-ba-olio birjina estra eta kontserba sortak eska daitezke, ekoizlearen jatorrizko prezioan, bertako herritar, nekazari, ekoizle eta euskaltzale sarearen auzolanari esker. Olio 5 litroko bidoietan banatzen da eta kontserbak 12 ontziko sortetan. Hiru saski mota daude aukeran.

Saski bakoitzaren balioaren %25 bideratzen da euskalgintzara. Martxoaren 12a baino lehen egin behar dira eskariak errigora.eus atarian.

Laburmetraiak

Zinhegoak. Gay-lesbo-trans nazioarteko zine jaialdiko laburmetraiak ikusgai **Kultur etxean, 19:30**

**Kontzertua**

Turbofuckers punk talde bilbotarra eta The Northagirres rock talde urretxuarra **Ikatz tabernan, 21:30**

MUSIKA

MARTXOAK 6 / 21:30

BARNE GUDA + BLOOM

Bergarako punk-rock taldea eta estilo ezberdinak jorratzen dituen Arrasateko boskotea ariko dira **Ikatz tabernan**.

MARTXOAK 15 / 12:45

MUSIKA BANDA

Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua **Santa Anan**.

APIRILAK 3 / 22:30

WILLIS DRUMMOND + LETAGIN

Baiona eta Oñatiko rock taldeen kontzertua. Sarrera 10€ (aldez aurretik 8€). **Gaztelekuan**

HITZALDIAK

MARTXOAK 6 / 19:00

VIDA Y CONTENTAMIENTO

Santana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak antoaltuta. Hizlaria: Ramón Martínez 'Pusham'. Sarrera doan. **Kultur etxean**

MARTXOAK 13 / 20:00

PRESO BATEN KARTZELAKO BIZIPENAK

Presoen aldeko elkarreta-

AGENDA

MARTXOAK

22

HANSEL ETA GRETTEL

Borobil Teatroren ikuskizuna, familia giroan ikusteko. Grimm anaien klasikoaren moldaketa dibertigarria **Santa Anan, 17:00 (3,50€)**

ANTZERKIA

ratzearen ondoren. **Gaztetxean**

MARTXOAK 25 / 18:00

MICROFÍSICA SEXISTA DEL PODER

M-8ko egitarauaren baitan. Hizlaria: Nerea Barjola. **Euskaldun Berria gelan**

MARTXOAK 27 / 19:00

LESBOS

Lesbos-eko (Grezia) errefuxiatu eremuan egon diren Xabi Gesalaga eta Miren Zubeldiak han bizi izandako esperientziak azalduko dituzte. Hotz-Oñatik antolatuta. **Kultur etxean**

MARTXOAK 25 / 19:00

ERRAUSTEGIAREN AURKAKO BORROKA AZKEN BI HAMARKADETAN

Hitzaldia, Oñati Zero Zabor taldeko kideen eskutik. **Gaztetxean**

MARTXOAK 28 / 10:00

MUNAY: PSIKOLOGIA TAILERRA

M-8ko egitarauaren baitan. Emakume migratuentzako psikologia tailerra, Úrsula Santa Cruzen eskutik (izen-ematea: www.oñati.eus). **Euskaldun Berria gelan**

ANTZERKIA

MARTXOAK 6 / 19:00

AINZAINDARIAK

Gloria Fuertes en olerkiak oinarri dituen ikuskizuna. **Santa Anan**.

EKIMEN BEREZIAK

MARTXOAK 14 /

NEWROZ EGUNA

Kurdistanen ospatzen den eguna da. 'Egun-berria' esan nahi du eta udaberriaren etorrera ospatzen dute. Kurdistanen inguruko tertulixa eta hango jakiak dastatzeko aukera egongo da **Gaztetxean**.

MARTXOAK 28 / INDEPENDENTZIA EGUNA

Ernaik antolatuta. Arranoaitzera irteera, bazkaria, hitzaldi-tertulia eta kontzertuak **Gaztetxean**.

ZINE EMANALDIAK

MARTXOAK 11 / 19:30

ERRAUSKETARI ATEAK IXTEN

Debagoieneko Zero Zabor taldeak 2012an eginiko dokumentala **Gaztetxean**.

MARTXOAK 13 / 19:00

'VARADOS'**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Hotz-Oñatiren eskutik, Helena Tabernaren filma, Greziako kanpalekue-tan dauden errefuxiatuei buruz **Kultur etxean**.

AZOKA

MARTXOAK 7 / 10:00

EMAKUME ARTISAUAK

Oñatiko emakume artisauren azoka, goiz osoan zehar **Foruen plazan**.

JOLASAK

MARTXOAK 29 / 11:00

NATURAN JOLASEAN

'Ludoteka Ibiltaria' ekimenaren baitan. **San Martinen**.

KANTU SAIOAK

OTSAILAK 28 / 12:30

HERRIXA KANTUAN

Jose de Azpiazu musika eskolak antolatutako kantu jira. **Foru plazan**.

IPUIN KONTAKETAK

MARTXOAK 23 / 17:30

TUPPERSEX Y CUENTOS EROTICOS

Inma Merino, sexologoa, eta Virginia Imaz, ipuin kontalariaren eskutik. Plazera eta barrea birkonkistatzeko estrategiak. (Emakumeentzat soilik). **Kultur etxean**.

MARTXOAK 26 / 18:00

OSTEGUN KONTALARIAK

6 urtetik gorako haurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa Maite Frankoren eskutik. **Haur liburutegian**.



Hilleko gomendioa

Azken hilabeteen film berri asko jaso ditugu. Baina bereziki euskal zinema gomendatzen dizuegu. Film ezagunak edo aurkitzeko zailagoak diren beste batzuk: Oñatiko ahuntzak, Urzulo, Azken egunak Gurian, Kalebegiak... hurbildu eta aukeratu gehien gustatzen zaizuna!



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Martxoak 11, 12, 20, 21, 22, 30 eta 31. Apirilak 8.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Martxoak 5, 13, 14, 15, 19, 23 eta 24. Apirilak 1, 2, 9 eta 10.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Martxoak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta 26. Apirilak 3, 4 eta 5.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Martxoak 9, 10, 18, 27, 28 eta 29. Apirilak 6 eta 7.

ZINEA



Martxoak 5 - 9

ZINE KLUBA:

Retrato de una

mujer en llamas

NAGUSIAK:

Parásitos

GAZTETXOAK:

Las aventuras del doctor Dollittle



Martxoak 12 - 16

ZINE KLUBA:

La vida invisible

de Euridice

Gusmao

NAGUSIAK:

Hasta que la

boda nos separe

GAZTETXOAK:

Bonnie Bears, aventura historiarrean



Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusia: Ostirala eta larunbata (22:30)

Igandea (19:30 eta 22:30)

Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Martxoak 19 -23

ZINE KLUBA:

Ez dago saiorik

NAGUSIAK:

Especiales

GAZTETXOAK:

Quackers, la

leyenda de los patos



Martxoak 26 - 30

ZINE KLUBA:

La hija de un

ladrón

NAGUSIAK:

Ofrenda a la

tormenta

GAZTETXOAK:

La llamada de lo salvaje



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA alokatzen da Aozaraza kalean. Deitu: 634.896 206.

GARAIE ITXIA errentan ematen da San Lorentzoko 9 zenbakian. 657716385.

ONATIKO BIKOTE BAT gara eta errentan hartuko genuke etxe bat. Erostea aukera ere baloratzeko prest egongo ginateke. 653 710 456.

ONATIKO EMAKUMEA etxe partikularretan orduka lana egiteko prest: garbiketasunak, erosketak, plantxa, adinekoei konpañia.... 688 603 052

ODOL ATERALDIA

MARTXOAK 6 / 17:00-19:00

Enpresagintza fakultatean, 17:00-19:00.



Zure etxebizitza hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilgogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati





(*) Itten: arrastua, pistia

>> Jakingarrixa:

Etxe izenak (eta 5)

EZIZENETATIK ETORRITAKUAK: Etxe-izenen saillari akaberia emuteko, ezizen batekin ezaguketan diran etxiak aittatuko dittugu. Ezizenen gaixa luzia duin zabala danez, mereziko leuke artikulua luziago batian gaixa hobeto jorraketa, baiña gaurkuan, esandako moduan, bakar-bakarrak etxe-izenai lotutako ezizenak landuko dittugu. Bi modukuak dagoz: a) Personiari emundako ezizena etxiak berak hartzen daueiñak, adib.: *Pekeño* bada personia, ha bizi dan etxiari *Pekeño*na esango xako. Eta *Mákatx* bada bizilaguna, *Makátxena* izango da haren etxia. b) Beste batzuetan, berriz, etxiak ezizen bat dako, eta orduan han bizi dan lagunak edo famelixiak etxiaren izena hartuko dau, adib.: *Txaiñena* etxiak, *Txaiña* ezizena emun xao bertako famelixiari, edota, *Petokiñena* etxiak, *Petokin*, hango famelixakuari.

Hona hemen, esplikautakuaren erakusgarri, ezizen bategaz izentaiten diran kaleko etxe batzuk, goiko illaran lehenagoko irudixak, eta, behekuan, gaurkuak:



Behetik gora, Otsuana, Azpeittixena, Kirriñena eta Metalgua (San Juan kalia)



Txapelena (Mendiko kalia)



Errementarixenetik Petokiñenera (Kale Zaharra)



>> Euskeraz egogi:

Bihar be!

Harridurazko espresio hau oso entzuna da, eta ironia zentzuagaz desadostasuna adierazteko ebalten dogu, era honetan:

A.- Pattar kopia etarako dostazu? **B.-** Pattarra? Hik bihar be, lehendik ez hago nahikua hartuta, ala?

A.- Guriak gaur be afarixa dako, ba! **B.-** Harek bihar be, puntuan-puntuan etxetik kanpora afaritten dau-eta!

A.- Datorren astian kanpora noia berriz! **B.-** Hik bihar be, oraintxe puntuan etorritta hago-eta!

A.- Billotz-jana dakogu zapatuan! **B.-** Bai, zuek bihar be, gose antxian ibilliko zarai-eta!

Ezta bihar be!

Espresio hori, berriz, erabateko ukapena adierazteko ebalten dogu. Halaxe:


A.- Orainguan etxaku tokau loterixia. **B.-** Ezta bihar be!

A.- Ardaurik eztoskue etara bazkarittek. **B.-** Ezta bihar be!

A.- Domeka honetan eneben jente larregi ikusi Urbixa aldian. **B.-** Gehixago, ezta bihar be!

A.- Orainguan eztoskue diarrik egin boluntarixio fateko. **B.-** Ezta bihar be! Ingiratuko dittuk gu barik!

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Zubikua inguruko aldaketak

Hain zaharra be ezta fotografixa hau. Bizi garien askok ezagutu dogu hola edo antzera Santa Ana aldeko paraje hori. Baiña 1980ko hamarkadan kanbixo galantak izan zittuan, mojak konbentu klasiko horretatik Garagaltzako barrira fan ziranian. Udalak bereganatutako eraikuntza eta lur sail zabal horreittan **makiñatxo bat aldakuntza gauzatu dira harrezkero.**

Elizan **auditorixua** eta **antzokixa** modutu euen, hitzaldi, kontzertu, jaialdi, teatro eta beste ikuskizun batzuetarako, eta urte batzuetan **zine-aretua** be izan zan; konbentuan, barrutik zihero hustu ondoren, **Txantxiku** ikastolarako **ikasgelak** eta lokal batzuk egogittu zittuain; sakristauaren etxietan **hainbat udal zerbitzu** jarri izan dira: ertzainak hasieran, udaltzainak ondoren, bake-epaitegixa, udal musika-bandaren entsaio-lekua edota kumun publikuak; eta aurreko zelaixari **bestelako itxuria** emun xako.

Dana dala, etziran makalak izan mojak ortu-lanetan ebalten euen eremu haundi horretan geroztik modututako obrak be; fotografixan saihesbide azpizan, hormaz inguratuta eta malatuaz ziharkatuta agiri dan saillian, hain zuzen. Hor jaso da, fase batian baiño gehixagotan, **Zubikoa kiroldegixa** hainbat atalekin: **pelotalekua, igarilekua, gimnasiua, tabernia** edota kirol-mota desbar-diñetarako **pistak, deporterako ez ezik beste ikuskizun eta ekiñaldi askotarako** balixo dauenak: musika-jaialdi, bertso-saixo, batzar, herri-bazkari eta abarretarako. Aurten beste aldaketa inportante bateri ekin xao udalak: **igarilekuaren barrikuntza eta birmoldaketa** sakonari. Egixa esanda, baeukan premiñia, kontuan izanda, gaiñera, zenbateraiño erabilleria dakoin piszinetako instalaziñuak.

Apur bat erreparau ezkerro, badira argazkixan **beste mudantza eta xehetasun garrantzitsu batzuk** be San Juan kalian nahiz Bidebarrieta aldian: adibidez, **Aloña** zine-aretua izandakua eta aldameneko etxebizitzak eretsi barik egozen artian; Bidebarrietako polygonua proiektu hutsa zan sasue haretan; edota **Mailluneko** eta ondoko etxietan ezta **Pakeleku** alkartiaren arrastorik ikusten. Horreik be geruagoko kontuak izan ziran.

Berrogei urte, gutxienez, eukiko dittuan fotografixa hau interneten topau dau Iñigo Arregik.



Antzuola, Bergara eta baita Oñatin ere

Gezalaga Margoak

ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK

- Industria
- Fatxadak
- Fatxada garbiketak
- Etxebizitzak



Tel. 616 277 999 eta 616 388 396
gezalagamargoak@hotmail.com